

■ PONENTZIAK  
2019ko Urria

# sexu lana

KRIMINALIZAZIOA  
EDO AITORTZA?



> idazkaritza feminista

iparhegoa

IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA



# sexu lana

## KRIMINALIZAZIOA EDO AITOR

JARDUNALDIAK • JORNADAS

# SEXU-LANA

KRIMINALIZAZIOA  AITORTZA?

## TRABAJO SEXUAL

¿CRIMINALIZACIÓN O RECONOCIMIENTO?

**VITORIA-GASTEIZ**  
24 de octubre ◊ Urriaren 24an  
Aldabe Gizarte Etxean  
(Portal de Arriaga Kalea, z/g)  
10:00 - 14:00

Clarisa Velocci  
[Colectivo Genera]

Maria Barcons  
[Grupo Antígona]

Paula Sánchez  
[Colaboradora de AFEMTRAS  
y del Colectivo de Prostitutas de Sevilla]

Paula Ezkerra  
[Delegada Sindical de la IAC,  
Intersindical Alternativa de Catalunya]

**T.A.B.** iparhego  IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA



# TZA?



LAB sindikatuan, langile klasea bere osotasunean ulertzeko eta, hortaz, berau osatzen duten subjektu guztiengana hurbiltzeko konpromisoari heldu nahi diogu, diskurtsoan ez ezik, gure praktikan ere bai. Horregatik, bazterretara begiratzea erabaki genuen eta konturatu ginen kapitalak baztertu, marjinatu edota zokoratzen dituen langile askorengana ez ginela iristen. Kapitalak langile hauek baztertu egiten ditu, ez duela-ko hauengandik inolako etekin ekonomikorik ateratzen edota hauek enplegu arauak ematen dituen eskubideetatik kanpo uztea onuragarri zaiolako.

Bide honetan sexu-langileekin elkartu gara, haiei entzun, ulertu eta dituzten eskaerei erantzuteko; edozein estereotipo, aurreiritzi edota epai moral alboraturik. Guztiz aberasgarria izan den topaketa izan da. Sexu-langileekin eta ikerlari zein aktibista adituekin sortutako elkarrizketak ez du inor hotz eta motz utzi eta, gainera, gure lan sindikalean, langileen eskubideen defendatzaileak garen heinean, geure buruari hainbat galdera egiten lagundu digu.

Guztiz beharrezkoa da errealitate hau bizi dugun sistema kapitalista heteropatriarkaleko testuinguruan kokatzea; trata, trafikoa eta prostituzioa ez direla gauza bera ulertzea; legediko ereduak ezagutzea eta ikustea eredu hauek ze nolako eragina daukaten sexu-langileen egunerokoan; estigma aztertzea eta jabetzea nola eragiten dien honek bizimodua ateratzeko jardura honetan aritzen diren emakumeei, nola desboteretzen, baztertzen eta zokoratzen dituen, alegia. Errealitate konplexu hau sinplifikatu ordez, era integralean ulertzea izan da gure asmoa.

Baina, batez ere, gure helburua sexu-langileen ahots propioa entzutea izan da, euren hitza moztu gabe, kuestionamendurik gabe, ikasteko asmoarekin eta subjektu politiko gisa aitorturik, haien bizitzen jabe eta agentzia duten subjektuak diren aldetik. Honek, gaur, LAB sindikatua lan merkatuak ezkututzen digun eguneroko errealitatetik gertuago jarri gaitu, bizitza erasotzen duen sistema honen kontrako borroka denon artean egin behar dugula ulertzetik hurbilago, zeren eta den-denok baikara langileak.



# Bortxazko prostituzioa helburu duen trata

## Eraikuntza soziala eta politika publikoak

CLARISA VELOCCI

**E**manaldi hau aprobeztatu nahi dut azaltzeko zein den Generaren lan ikuspegia bortxazko prostituzioa helburu duen trata edo salerosketaren inguruan. Honek esan nahi du trata kontzeptua deseraiki beharko dugula –honekin ez dugu inolaz ere egoera honetan dauden emakumeek pairatzen dituzten bortxakeriak ukatu nahi- eta, era berean, pentsatu behar dugula zeintzuk diren trataren inguruan izaten diren nahasmendu nagusiak, ikusarazi ahal izateko nahasmendu hauek ez direla kasualitatez edo konturatu gabe gertatzen.

Gure lan ikuspegia interbentzioan datza eta bi ardatzetan dago oinarrituta: feminismoan eta giza eskubideen defentsan. Hainbat jardueralerro dauzkagu: esku-hartze programak prostituzioa gauzatzen den eremuetan (hauek etengabeko diagnostikoa egiteko aukera ematen digute); zuzeneko arreta; prestakuntza; edo eragin politikorako esparruetan zein ekintza kolektiborako eremuetan parte hartzea.

Errealitate oso ezberdinak ezagutzen ditugu eta, hortaz, “prostituzioen” inguruan, hau da, pluralez, hitz egiteko premia mahaigaineratu beharra ikusten dugu. “Eredu” handietan pentsatu baino lehenago, ñabarduraz beteriko errealitate oso anitzak daudela jakin behar dugu. Seguruenik estigma sozialak estuki lotzen dituen errealitateak dira, baina oso ezberdinak dira prostituzio jarduerarako baldintza materialei dagokienez.

Zergatik egin behar dugu trata edo salerosketaren inguruko kontzeptualizazio kritiko bat? Kapitalismoa

eta heteropatriarkatua kuestionatzen dituen ikuspegi estruktural feministatik abiatzen garelako eta, ikuspegi honen arabera, **bortxazko prostituzioa helburu duen salerosketa edo trata indarkeria matxistaren moduetako bat delako**. Hausnarketari hasiera emateko abiapuntu oso esplizitua da hau: Trata edo salerosketa era hau indarkeria matxista modu bat da, emakumeen askatasun galera dakarrelako eta lortzeko modua indarkeria edo koakzioaren bitartez delako; hortaz, oinarrizko eskubideen urraketa dakar berarekin batera.

Gainera, trataren inguruan gertatzen diren hainbat dinamika indarkeria matxistaren beste modu batzuekin pareka litezke. Hauen artean aipa genezake “**trataren biktima**” kategoriaren eraikuntza. Kategoría hau aztertzea interesgarria da. Eraikuntza sozial zein politzial-judiziala da. Kategoría hau, lehenengo eta behin, “biktimaren” ideian zentratzen da –eta, gainera, indarkeria matxista honetako protagonistak agentzia gaitasunik izango ez balute bezala kokatzen ditu iruditeria kolektiboan- eta, bigarrenaz, prostituzioaren estigma dela eta, “biktima-kriminalaren” ideian zentratzen da.

Aurrera egin baino lehenago, beharrezkoa da “trata edo salerosketaren” definizioen bat ematea, azterketa honi segida eman ahal izateko. *Zigor kodea* aipa genezake, zehazkiago, *177 bis artikulua*, baina uste dugu honen azalpen errazagoa eman dezakegula:

**Trata giza eskubideen kontrako delitua da. Pertsonak indarrez, mehatxuz edota koakzioz hartzean eta garraiatzean datza –mugak zeharkaturik ala ez-**



eta helburua pertsona hauen esplotazioa da.

Definizio hau trata modu ezberdinei aplikatzen zaie. **Azalpen instituzional gehienek “sexu-esplotazioa helburu duten horiek” aipatzen dituzte eta prostituzioaren afera ekartzen dute erdigunera, baina, hala ere, badira beste hainbat esplotazio modu, politika publikoek askotan ahazten dituztenak.** Trataren beste modu hauek esplotazioaren helburua –edo, bestela esanda, esplotatu nahi den jarduera- azaltzeko izenak dauzkate. Hauek dira, esaterako, “lan esplotazioa helburu” dutenak, “mirabekeria edo neskamekeria” (zaintza eta etxeko lanen eremuan gertatzen den esplotazioa), eta bortxazko ezkontza modu batzuen definizioa ere sartu da legean.

Azterketa feministatik nabarmendu behar dugu definizio hauetan “lan esplotazioa helburu” duen trata edo salerosketatik kanpo geratzen direla lan erreproduktiboko eta zaintza lanetako jarduera asko, normalean emakumeek gauzatzen dituztenak. Hau da, salerosketaren kontzeptualizazioari egiten zaion kritika feminista kategoria hauetan egiten den lanaren banaketatik abiatu beharko litzateke, zalantzarik gabe, banaketa honen arabera jarduera batzuei lan aitortpena ematen zaielako eta beste batzuk kanpoan uzten direlako. Eta badirudi kategorizazio arbitrario hau prostituzioaren inguruko eztabaidatik harago doala. Adibide zehatzetan azaltzeko: eraikuntza jardueretan gertatuko litzatekeen salerosketa edo trata egoera bat “lan esplotazioa” izango litzateke, baina, hala ere, salerosketa etxeko lanetarako balitz, “mirabekeria” izango



## CLARISA VELOCCI



Feminista, migrantea, bortxakeria matxistek urratzen dituzten eskubideen inguruko esku-hartzean espezializata eta politika publikoak ikuspegi feministaz aztertzean aditua.

Genera elkarrearen fundatzaileetako bat da. Erakunde honek 15 urte baino gehiagoko esperientzia dauka prostituzio eta trataren gaiak jorratzen, giza eskubideen ikuspegi feministaz.

Antropologia sozial ikasketak egin zituen Pariseko Zientzia Sozialen Goi Ikerketen Eskolan [EHESS].

Hainbat esparru feministatan hasi zen prostituzioaren inguruan hausnartzen, zehazkiago, patriarkatuaren kritikatik eta, honekin batera, kapitalismoaren eta ipar-hegoalde harremanen kritikatik ere eztabaidatzen zuten esparruetan, hala nola Latinoamerika eta Karibeko VII Topaketa Feministan, 1999an.

2003an, jadanik Bartzelonan zegoela, emakume aktibisten talde batekin batera, Genera sortzea erabaki zuten. Erakunde honen xedea da sexu-esplotazioa helburu duen trataren eta prostituzioaren errealitateen inguruan eztabaidatzea eta esku-hartzea.

Genera arreta zuzeneko esparrua da eta hainbat bortxakeria matxista pairatu dutenen osatze edo indarberritze prozesuetan laguntzen ahalegintzen da. Honetaz gain, eragin politikorako motorra ere bada, eskubide urraketan salaketarako zein prostituzioari ekiteko paradigma berrien sorkuntza kolektiborako.



*Migrazioak kriminalizatzeko testuinguru orokor horretan, "trata edo salerosketa borrokatzeko" aitzakia migrazioen kontrolak gogortzeko beste bitarteko bat baino ez da. Hau da, trata eta trafikoaren artean nahita sortutako nahasmendua erabiltzen da mugak babesten jarraitzeko.*

litzateke eta sexu komertzialerako balitz, "sexu esplorazioaz" arituko ginatke.

**Generan bortxazko prostituzioa helburu duen salerosketaz edo tratatzen hitz egiten dugu, bortxazko lanaz ari garela nabarmentzea garrantzitsua delako.** Eskubide urraketa honen ardatzean koakzioa jartzen dugu; honela, prostituzioaren inguruko epai moraletatik aldendu eta kritika etikan zentratzen dugu, hau da, emakumeen giza eskubideen defentsaren araberrako kritika egiten dugu.

Hasierako hausnarketa hauek eginda, agerikoa da bortxazko prostituzioa helburu duen tratatzen kontzeptualizazio eta hurbilketan ikuspegi feminista txertatu behar dela. Honek adierazi nahi du, labur esanda, emakumeen eskubideak lehen planora ekarri behar ditugula. Eta hau zehaztasunez egiteko, gainera, hainbat egoera eta testuinguru bereizi behar ditugu. **Pertsonen tratatzen eta trafikoaren artean ohikoa den, eta askotan nahita egiten den, nahasmenduz** ari gara.

Trafikoaren definizioaren funtsean mugen zeharkatze irregularrak dago. Hau Estatuak baldintzatzen dute zuzenean, euren legeen bitartez pertsonen mugimendua askea oztopatzen baitute eta arrisku handiak hartzerak behartzen baitituzte.

Egunez egun milaka pertsonen segurtasuna eta bizitzak arrisku zuzenean jartzen dituzten politika publiko hauek gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da migrazaiteen kontrako beldur eta gorroto diskurtsoak sortzea eta zabaltzea. Ezinbestekoa da migrazaiteak etengabean kriminalizatzea, gizakien bizitzak baino, fikziozko marrak babestea nahiago duen marko juridikoari eutsi ahal izateko. Ordenamendu juridiko barruan, trafiko

estatuaren kontrako delitua da, lotsagarria bada ere, "babestu nahi den ondasun juridikoa" -legeak babestu nahi duen hori- Estatuaren muga baita. Horregatik, "trafikatutako" migrazaiteak (trafiko egoeran dauden migrazaiteak, alegia) salatuak izan ahal dira, atzeritarren legearen kontrako falta egiten ari direlako. Falta honek, maiz, isun ekonomikoren bat edo Estatuetik kanporatzea ekartzen die pertsona hauei. Izan ere, kriminalizazio testuinguru honexetan sortu ziren atzeritarren barneratzeko zentroak (gaztelarazko CIE izenekoak), non milaka lagun askatasuna kendu eta atxilo izaten dituzten.

Migrazioak kriminalizatzeko testuinguru orokor horretan, "trata edo salerosketa borrokatzeko" aitzakia migrazaiteen kontrolak gogortzeko beste bitarteko bat baino ez da. Hau da, trata eta trafikoaren artean nahita sortutako nahasmendua erabiltzen da mugak babesten jarraitzeko. Trataren kontrako borroka oro har "goraipatu" beharreko zerbait bihurtu da. Asmo onen geruza honek, halere, giza eskubideekin zerikusirik ez daukaten eta, areago, guztiz kontraerriak diren interes askoz maltzurragoak ezkututzen ditu.

Adibide argigarri batzuk aurki ditzakegu tratatzen inguruko erreferentzia hainbat testu legeletan. Hasteko, **2000ko Palermoko Protokoloa**, nazioarteko tresna garrantzitsu bat dena. Nazio Batuen Konbentzioa da, antolatutako delinkuentziaren ingurukoa, "tratari aurrea hartu, galarazi eta zigortzeko" helburua duena. Honek, bere izenburutik bertatik pista nahikoak ematen dizkigu eta erakusten digu ez dela gauzatu balizko biktimen eskubideen ikuspunturik. Gainera, artikuluetan zehar, mugen zaintza hutsaz



*"Trata edo salerosketaren biktimaren" eraikuntza sozialean aztergai dagoen lehenbiziko ezaugarria da atzerriko pertsonekin edo egoera administratibo irregularrean dauden pertsonekin erlazionatzen dela -trafikoarekin nahita sorrarazten den nahasmenduak bideratzen du hau-*



aritzen diren hainbat paragrafo topa ahal ditugu: 11. artikulua honen inguruko sei puntu dakartza, hala nola Estatuaren mugetako kontrolak sendotzea, tratari aurre egin ahal izateko. Ideia hau ez da batere egokia trataren biktima izan diren pertsonak babesteko; aitzitik, migrazioen kontrako neurri argia da.

Honi dagokionez, gainera, hizpidera ekar genezake trataren afera ia etengabe eta guztietan antolatutako krimenaren ikuspuntu hutsetik jorratu ohi dela. Ikuspegi honek, alde batetik, trata genero ikuspegitik kontzeptualizatu ahal izatea galarazten digu, baina, beste alde batetik, gure arreta pertsonen eskubideetatik aldendu eta segurtasun eta delitu jazarpen gaietan kokatzen du. Komunikabideek sarritan erabiltzen duten diskurtsoa da hau, bereziki prostituzioaren aritzen diren pertsonen begirako operatiboak kontatzen dituztenean.

Bortxazko prostituzioa helburu duen trata izaten da ia eskusiboki jorratzen den gaia –komunikabideetan, politika publikoetan, ekintza polizialeetan...-, bestelako trata modu batzuekin konparatuta. Honek, eskubide urraketen beste errealitate batzuk ezkutatzear gain, iruditeria oso zehatzak eraiki ere egiten ditu.

**“Trata edo salerosketaren biktimaren” eraikuntza sozialean aztergai dagoen lehenbiziko ezaugarria da atzerriko pertsonekin edo egoera administratibo irregularrean dauden pertsonekin erlazionatzen**

**dela –trafikoarekin nahita sorrazten den nahas- menduak bideratzen du hau-.** Egiten den lotura hau ez da batere zorrotza, ez dator bat definizio legalarekin eta, gainera, honek beste ondorio bat dauka: trata egoerak atzematea zailtzen duen “profila” eratzen da eta, hortaz, ezaugarri faltsu hau betetzen ez duten beste “biktimei” euren eskubideen gauzapena oztokatzen die. Gogoratu behar da trata giza eskubideen kontrako delitua dela eta, hortaz, administrazio guztiak behartuta daudela eskubide horiek babestera. Hau ez bermatzea –egiteagatik edo ez egiteagatik- kontu oso larria da.

**Palermoko Protokoloarekin gertatu bezala, hemen ere badaukagu testu legal bat honen guztiaren arrazoien eta ondorioen adibidetzat balio diguna. Europako 39/2011 Zuzentarauak** trataren biktimen eskubideen dekalogo moduko bat dakar eta Estatuak egiten die, giza eskubideen kontrako delitua denez geroztik, honi begirako neurriak har ditzaten. Hauen artean, sendatzeko edo indarberritzeko zein hausnarketarako epealdi bat ezartzen du. Denbora honek (gaur egun 90 egun dira) balio beharko luke indarkeria egoera pairatu duen pertsona, egoera hau behin atzean utzita, sendatzen edo indarberritzen has dadin, bere eskubide guztiak babesten eta errespetatzen zaizkion eta horretarako laguntza jasotzen duen bitartean. Epealdi honetan, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen kontra ezin da kanporaketa espedienterik hasi atzerriar legean oinarrituta. Zuzenta-



rauak egiten duen aipamen honek eskubideen bermea dauka helburutzat. Hala ere, Europako zuzentaraua Estatuaren legedietara eraman denean –hau da betebeharrak hauek Estatu bakoitzaren legeetan txertatu direnean– sendotzeko edo indarberitzeko zein hasunartarako epealdi hau sartu zuten non eta atzerritarren legean bertan. Ideia benetan okerra. Eta epealdi honi eman zioten xedea izan zen trataren biktima izan diren pertsonen denbora honetan pentsa dezatela –kanporatuak izan barik– delitua argitzen lagunduko edo argipenean kolaboratuko ote duten. Zelanbaiteko ironiaz kontu liteke hau, ez balitz guztiz tragikoa. Indarberitze sasoi hau trata egoeratik pasatu diren pertsona guztien sendatze emozionalerako izan beharko litzateke eta, honen ordez, Europako Batasunetik kanpoko lagunak kaleratuak ez izateko denbora tarte huts izatera pasatu da eta, gainera, bere funtzioa balizko salaketa polizial-judizialaren inguruan hausnartzera mugatu da.

**“Trataren biktima” kategoria sozialaren eraikuntzaren azterketara itzuliko gara berriro: bortxazko prostituzioa helburu duen trataren kontra balizko politika publiko egokiak egiten direnean, beste premisa faltsu bat sortzen da: emakumeen gainbiktimizazioa.** Bestela esanda, mugak babesteko politikak, giza eskubideak urratu eta emakumeak berbiktimizatzeaz gain, trata egoeran dauden pertsonak gainbiktimizatu ere egiten dute.

Honela, trataren biktimak babesteko balizko neurri egokia balitz bezala, mugen kontrola jorratzen da eta, hortaz, trata egoeran dauden emakumeak migratzeko asmorik izan ez dutelako premisa faltsua zabaltzen da. Erabakiak hartzeko agentzia propiorik sekula izan ez duten biktima pasibotzat irudikatzen dituzte eta, gainera, migranteen kriminalizazioan sakontzen da, ukatzen baita pertsona hauek inoiz lekualdatzeko eta mugak gurutzatzeko asmoa izan dutenik.

Baina errealitatean, -eta beti ere trata eta trafikoa be-

“

Den-dena batzen badugu

"sexu-esplotazio" ideiapean

eta tratarekin parekatzen badugu,

trata egoeran dauden

emakumeen eskubideei

eraginkor ekin ahal izatea zailtzen

dugu eta, beste hausnarketa baten

perspektiba ere galtzen dugu,

hau da, prostituzioan aritzeko

baldintza materialen inguruko

kritika ere galtzen dugu.





reizturik- trataren biktima izan diren atzerriko emakumeek, kasu gehienetan, migratzeko proiektua izan zuten, euren bizimodua hobetzeko helburuaz. **Beraz, mugen kontrola Estatuaren indarkeriazko neurria baino ez da, baita Europako Batasunetik kanpoko trataren biktimen kasuetan ere, eta ez da inolaz ere eskubideak babesteko modu bat.**

Trata egoeran dauden emakumeen gainbiktimizazio hau bereziki gertatzen da bortxazko prostituzioaren kasuan –bestelako trata modu batzuekin konparatuta-, prostituzioaren estigmaren logikaren arabera funtzionatzen duelako. Gogora dezagun “puta” estigma “biktima-kriminal” eraikuntzan oinarritzen dela. Horregatik, beharrezkoa da bortxazko prostituzioa helburu duen trataren biktimak guztiz erru eta hobetik gabe islatzea, migratzeko erabakiari dagokionez zein prostituzioan aritzeari dagokionez.

Iruditeria hau zehatz ikus daiteke komunikabideek gaia jorratzen duten forman, adibidez. Sarritan engainuaren afera erdigunean kokatzen dute prostituzioari dagokionean –ea trata eta esplotazioaren zergatia edo helburua izango zena alde aurretik eza gutzen ote zuten, alegia-, baina, aitzitik, aldagai hau ez da agertzen gainontzeko jardura ekonomikoen kasuetan.

Inork ez dio bere buruari galdetzen edo inork ez du garrantzitsutzat jotzen marrubiak batzen aritzen diren sasoikako langileek fruta batuko zutela ote zekiten alde aurretik ala ez. Zeren eta kasu horretan erdigunean ez baitago jardura bera, baizik eta lan hori egiteko benetako baldintzak zeintzuk diren. Hau da, autonomiaren galeraraino heltzen den mugako esplotazio kapitalistaren inguruko ikuspegi etikoa. Adibide hau ipini dugu, bortxazko prostituziotik harago, nekazaritza lanetan gertatzen den esplotazioa komunikabideetara heldu den trata modu bakarretako bat izan delako.

Hausnarketa honek ez du inolaz ere esan nahi uka-

tzen dugunik jardura –edozein dela ere- ezagutzen ez zuten eta trata egoeran egitera behartuak izan ziren pertsonentzat, hau aldagai larrigarria ez denik. Jakina, emozionalki izan ahal da, baina ez litzateke izan beharko guretzat, oinarrizko eskubideen urraketa salatzen dugun heinean. Ez dago trataren biktima hobe edo txarragorik, segun eta engainatuak izan ziren ala ez; giza eskubideen urraketa gertatu egiten da, berdin hasiera batean ados zeuden ala ez fruta batzeko, ehungintza lantegi batean lan egiteko edo prostituzioan aritzeko. Orduan, zergatik bortxazko prostituzioan bihurtzen da hau gai nagusi? Argi dago **“biktimaren” kategoriaren eraikuntza sozialaren ikuspegitik beharrezkoa dela engainuaren faktorea. Honek estigma ikuspegi moraletik “leuntzeko” edo “konpontzeko” bitarteko moduan erabiltzen du, emakume hauek “biktima-biktima” izan daitezen (errugabe eta hobengabeak) eta ez “biktima-kriminalak”, prostituzioan aritzen diren emakumeak diren bezala.**

“Trataren biktimaren” kategoria –iruditeria kolektiboan- eraikitzeko estigma sozialak zelan funtzionatzen duen jakitea guztiz interesgarria da eta, gainera, trata eta prostituzioa bereizteko premia ulertzeko balio digu.

Esan behar da komunikabideetan gai hau ez dela bate-re zorrotasunez jorratzen (eta batzuetan trataera guztiz sentsazionalista ere egiten da). Honek biktimentzat zeharo diskriminatzaileak diren hainbat estereotipo birsortzen ditu. Komunikabideek zabaltzen dituzten errelatoetan trata nazioarte mailan antolatutako sare erraldoien kontua balitz bezala agertzen da eta ahazten dute trata modurik ohikoenak askoz apalagoak direla eta tokian tokiko esplotazio kapitalistaren konplizitate beharrezkoa dutela. Honetaz gain, prentsak datu eta zifren anabasa amaigabea hedatzen du. Aise eta itsumustuan botatzen diren datu hauek guztiak, ezin ikerketatan oinarrituta ez egoteaz gain, nahita ezkutatzen den osagai ideologikoz blai daude.



Osagai hau, kontzeptuala izatetik, zifretara lekualdatzen joan da eta islatzen du zelan identifikatu den trata, kontzeptu moduan, “sexu esplotazioarekin”. Hau ez dator bat hasieran eman genuen definizioarekin, baina ezta lege penalak azaltzen duenarekin ere. Kontzeptu oso anbigua da; trata eta prostituzioa bateratzen ditu eta, zenbaki astronomikoak emanda, lerroburu handiak sortu bai, baina ez du jarraipenik egiten biktimatzat jotzen diren milaka eta milaka pertsona horien eskubideen inguruan.

Normalean ematen diren datuak, beraz, okerrak izaten dira, eta, esan dugunez, prostituzioan aritzen diren emakume guztiak trataren biktimak balira bezala islatzen dituzte –den-denak ez izan arren, edozein kopuru beti da gehiegi-. Baina, gure uste apalean, informazio hauetatik harago, beste gai batzuk prentsarako artikulatu bikainak izango liritezke: atzeman eta identifikazio prozesuetan trata egoeran dauden emakumeen eskubide falta; salaketa egin dezaten baldintzatuak izaten direla –egiteagatik ala ez egiteagatik- eta ez zaiela babesik bermatzen, ez eurentzat ez euren familientzat; baliabiderik eza eta abar luze bat. Gai hauek guztiak daude Estatuaren segurtasun indarrei ipintzen zaizkien dominetatik harago, balizko salbamendu eta erreskateetatik harago eta honen guztiaren inguruko operatibo mediatikoetatik harago.

Dudarik gabe, berriro ere informazioaren merkatuaren aferaren aurrean gaude. Testuinguru honetan –ikuslego eta iragarki salmenta honetan- indarkeria matxisten errespetuzko trataera zuzena ez da inondik ageri. Trata ez da salbuespena, adibide paradigmaticoa baino.

Interes politikoak direla eta, trata fenomeno masiboa delako ideia sortu da: fenomeno masiboa, mafia handiek kontrolatua eta esku-hartze polizialaz kontrolatu beharrekoa. Eta berriro ikus dezakegunez, komunikabideek ideia hori zabaltzen laguntzen dute. Honekin guztiarekin bi kontu jartzen dira jokoan: lehenengoz, prostituzioan aritzen diren emakumeek euren eskubideen inguruko ahots propioa galtzen dute eta erabaki ahalmena ukatzen zaie; argudio hauen bitartez islatzen da hitz egiten duten horiek gutxiengo txikia direla eta ordezkaritza txikia daukatela errealitate ilun horretan, edo gutxiengo hori “alienatuta” dagoela eta ez dela gai pairatzen ari den indarkeriaz kontziente izateko. Bestela esanda, eskubideak aldarrikatzen dituzten sexu-langileei agentzia ukatzen zaie. Jokoan sartzen den bigarren kontua da –jadanik aipatu dugunez- trata krimen antolatua eta segurtasun nazionalaren afera dela; justiziaren eta zigorraren papera gainordezkatzeko da eta “trataren kontrako borrokan” aritzeko esku-hartze poliziala erantzun bakar eta ezinbestekoa



bailitzan agertzen zaigu. Fiskaltzak urtero ateratzen dituen txosten ofizialetako datuak kontsultatu baino ez dago honen guztiaren eraginkortasun falta eta urriak baino urriagoak diren emaitzak egiaztatzeko.

Esan beharra dago ideia hau, bortxazko prostituzioa helburu duen trataren kasuan ez ezik, indarkeria matxistaren beste modu batzuetan ere errepikatzen dela: ikuspegi oso antzekoak dira, zigor hutsezko erantzunak askoz konplexuak diren arazoei irtenbidea emateko modu bakartzat; zigor kodearen erabilpen hutsa baino, proposamen askoz zabal eta garestiagoak dira beharrezkoak.

Ekin diezaiogun berriro lehen jorratzen hasiak ginen **trata eta prostituzioaren arteko ezberdintasunari**. Ezberdintasun hori kontzeptualki pentsatzeko topatzen dugun lehen zailtasuna da, hain zuzen ere, “sexu-esplotazioaren” termino generikoa, lehen aipatu dugun bezala. “Bortxazko prostituzioa helburu duen trata” edo “sexu-esplotazioa helburu duen trata” jarduera horretara aritzeko koakziotzat definitu dugu lehen eta, hortaz, hortik aparte geldituko litzazuke –bereiztuko genuke- bortxaz edo koakzioaz eragiten ez den prostituzioaren inguruko eztabaida eta, beraz, ahots guztiak kontuan hartuko genituzke.

Hala ere, den-dena batzen badugu “sexu-esplotazio” ideiapean eta tratarekin parekatzen badugu, trata egoeran dauden emakumeen eskubideei eraginkor ekin ahal izatea zailtzen dugu eta, gainera, ezkerreko erakunde sindikalekin batera jorratu beharreko beste hausnarketa baten perspektiba ere galtzen dugu, hau da, prostituzioan aritzeko baldintza materialen inguruko kritika ere galtzen dugu. Sexu-lana eta trata gauza bera ez direla esateak ez du adierazi nahi prostituzioaren jardueran baldintza txarrik ez dagoenik. Hau da, ez du esan nahi esplotazio kapitalista ukatzen dugunik. Ez dugu orain esango prostituzioan aritzen diren emakumeak direla kapitalismoaz guztiz askatze-

ko modua aurkitu duten bakarrak! Horixe baino ez dugu behar! Aitzitik, generikoki biktimak kategorian sartzen baditugu –trataren biktimak edo sexu-esplotazioaren biktimak-, euren lan baldintzen inguruko aldarrikapenerako azterketa egin beharrea, euren agentzia gaitasuna zalantzan jarriko genuke eta baldintza material horiek hobetzeko, euren antolaketa bultzatzeko eta eskubide kolektiboen alde borrokatzeko edozein ekimen oztopatuko genuke.

Hortaz, trata eta prostituzioa etengabea nahasteak sistemaren aitzakiei bide ematen die. Sistemaren interesa ez da emakumeen eskubideak zaintzea eta, are gutxiago, prostituzioan aritzen diren emakumeen eskubideak babestea. Aitzitik, interes oso bestelakoak dauzka. **Honela, “trataren kontra borrokatzeko” asmoz sortzen diren marko legalek emakumeak “biktima-kriminal” bihurtzen dituzte eta, teorian, askatu nahi dituzten emakume horien aurka jazarpen-operatibo sistematikoak jartzen dituzte martxan.** Hasieran aipatutako “biktima-kriminal” eraikuntza honek bideratzen du politika publikoen bitartez gaiari logika perbertsoetatik ekitea. Hamaika adibide ditugu: udaletako ordenantzetatik, herritarren segurtasun legera arte (egoki izendatutako mozal legera arte, alegia).

Espero litekeen bezala, interbentzio hauek ondorio oso zuzenak dauzkate prostituzioan aritzen diren emakumeentzat: euren eskubideak urratuak dira, askatasunak galtzen dituzte, pobretzen dira, klandestinitatuak dira, euren kontra indarkeria instituzionala erabiltzen da eta abar luzea.

Marko kontzeptual ideologiko hau prostituzioa eta trata nahasten tematzen da (horretarako, kontzeptuen anbiguotasuna eta datu nahasgarriak erabiltzen ditu) eta prostituzioaren gaineko moraltasuneko begiradan oinarritzen da. Begirada hau, nahiz eta horrekin ados egon ez, guztiz legitimoa izango litzateke prosti-

tuzioaren inguruko eztabaida batean, baina, hala ere, kapitalismoaren eta patriarkatuaren interesen konplizitatearekin eratu da, sexu-langileen eskubideak, agentzia eta hobekuntza laboralen aldeko borroka sistematikoki ukatu, estigma errepikatu eta indarkeria sortzen baitu. **Eta “trataren biktimak” zorigaiztoko egoeran uzten ditu, pertsona hauek ez baitute sekula beren eskubideak bermatuko dituzten politika publiko espezifikorik izango eta ez baita inoiz jarduera polizial edo judizialek haragoko ikuspegiak txertatuko.** Baina hau guztia oso feminista instituzionala da, suposatzen baitute honek lagunduko duela hainbeste astakeria jasaten. Eta hori bai, gainera, trataren kontra borrokatzeko aitzakiarekin, askoz politago geratzen baita, baita Estatuko ordenamendu judizialarekin bat ez datorrenean ere. Zeren eta, trataren inguruan hitz egiten dugunean, bortxa edo “koakzioak” egoten baitira; ez gara lan jarduera batean izaten diren baldintza txarrez ari, ezta biziraun ahal izateko lan egiteko “premia” ere. Horrela balitz, trata lanaren sinonimoa izango litzateke, edozein lanen sinonimoa. Tratat hitz egiten dugunean, indarkeria goerez ari gara eta hau argi geratu behar da.

“Trataren kontrako borroka” instrumentalizaten duen marko ideologiko kontzeptualaren beste ezaugarri bat da (eta ez naiz ari trata egoeran dauden emakumeen eskubideen defentsaz, gauza ondo ezberdinak dira eta) arrazoiak eta ondorioak itzelezko sinplekeriaz ematen direla. Adibide klasiko bat kanpainak dira, hala nola, “trata existitzen da prostituzioa existitzen delako, ez kontsumitu prostituziorik”. Lelo inozoa da, baina, estigma soziala hain da handia, ezen eztabaida edo zalantza handirik gabe sartu egiten baita, atzean duen mami morala agertu gabe. Egin dezagun ariketa erraz bat eta eraman dezagun ideia hau beste jarduera ekonomiko batzuetara. Adibide moduan, pareka dezagun Andaluzia partean marrubi bilketan egon diren trata salaketa kasuekin. Marrubiak jaten ditugulako existitzen al da trata? Edo trata existitzen da testuinguru patriarkalak eta emakumeen lan eskubideen bermerik ezak trataren haztegiak direlako eta hala gartzen delako, tokian tokiko adostasun kapitalista lagun?

Horregatik, Generan uste dugu trataren zein prostituzioaren inguruko eztabaida beharrezkoa dela eta eztabaida horrek bide eman behar digula testuinguru terminoetan pentsatzeko; eta horretarako, hausnarketak esparru horretarako, mugimendu feministen eta erakunde sindikalen arteko aliantza funtsezkoa da. Sexu-langileen eskubideak aldarrikatzen dituzten sexu-langileen taldeei laguntzeko ez ezik, ekoizpen-bal-

dintza kapitalisten eraldaketa trata egoerak ekiditeko gakoetako bat delako ere bai.

Horregatik, ezinbestekotzat ikusten dugu esparruak sortzea, trata eta kapitalismoaren arteko harremanak azter ditzagun, “trataren biktimen” inguruko iruditeriak atzean utzita eta prostituzioaren estigma dese-raikirik, horixe baita modua feminismotik erantzun konplexuak, zuzenagoak eta eskubideetan oinarritutakoak topatzeko. ♦



“

Hainbat errealitate desberdin daude, hainbat bereizketa egiten dira: lan produktiboa eta erreproduktiboa, langabeak eta langunak, finkoak eta behin behinekoak, lanaldi osoa edota lanaldi partziala dutenak, enpresa nagusiko eta azpikontratako langileak, gizarte segurantzako erregimen orokorrean daudenak eta erregimen berezituak dituztenak (etxeko langileak, autonomoak..), aniztasun funtzional edota sexu-generikoagatik askotan diskriminatuak diren langileak, sexuan dabiltzan langileak, migranteak, lan munduan sartu-irtenean ibiltzera kondanatuak daudenak, euren etxeetako langileak eta beste hainbat errealitate ditugu langile klasearen baitan.

”





# Egiturazko estigma eta eskubideen urraketa

PAULA SANCHÉZ

---

XI. mendearen hastapenetan Link eta Phelan soziologoen (2001) “estigma” kontzeptua birdefinitu zuten, Erving Goffmanek (2015 [1963]), eurentzat teoriko handia izan zenak, definizio hau argi-izaletan utzia zuela jakinda. Izan ere, psikologo sozialek estigma sorrarazten duten prozesu kognitiboak aztertzen zituztenean eta Goffmanek estigmaren inguruan bere obra paradigmatikoa argitaratu zuenean, estigmaren definizio hain anitzak erabiltzen zituen, ezen elkarren baztertzaila ere suertatzen baitziren. Horregatik, Link eta Phelanek kontzeptua birdefinitzeari ekin zioten. Horretarako, sortuak ziren hausnarketak sistematizatu zituzten eta estigma prozesutzat ezaugarritu zuten, hainbat elementuk bat egiten duten prozesutzat, alegia (etiketatua, estereotipoak, “gu” eta “eurak” taldeen arteko banaketa, estatus galera eta diskriminazioa). Aipatutako elementu hauetako bakoitzak katearen maila bat irudikatzen du eta, denak bateratzen direnean, estigma deitzen dugun hori sorrarazten dute.

Hala ere, estigmatizazio prozesuak bost elementu hauek besterik ez balitu beharko, egoera paradoxiakoan egongo ginatke. Adibide bat jartzearren: polizia. Esan genezake polizia agenteak ere etiketatzen direla. Honen ostean, etiketa horiek estereotipoekin lotzen dira eta estereotipo hauek “gu” eta “eurek” taldeen arteko banaketa sortzen dute. Gehitu genezake zenbait eremutan polizia izateak estatus galera dakarrela eta, hainbat sektorereantz, diskriminazio mailaren bat suposatzen duela. Hala ere, polizia bezalako pribilegiadun subjektu bat izan ahal da, aldi

berean, estigmatizatua? Gure soziologoen ezetz uste zuten eta pentsatu zuten paradoxa hau gertatzen dela azken osagaia antzematea falta zelako, hau da, estigma sorrarazteko beharrezkoa den azken osagaia: boterea, alegia. Horregatik, deskribatutako kate-prozesu hori egiturazko egoera batean gertatu behar zen non botere sozial faltak markatzen duen estigmatizatutako kolektiboa. Boterea izanez gero, estigmatik ez.

Askotan, “estigmaz” hitz egiten denean, estigmaren dimentsio sozialaren inguruan hausnartzera mugatzen gara, hau da, estigma honen bizipen pertsonalaz eta estigmak sorrarazten dituen diskriminaziozko ondorioez. Link eta Phelanek ekarpena izan zen kontzeptua interpretatzeko gure ikuspuntua zabaltzea eta, horrela, uler dezakegu estigmak, dimentsio mikro-soziologikoa ez ezik, egiturazko dimentsioa ere –batez ere– badakarrela berarekin batera. Hau da: boterearen banaketa desberdina, estigmaren semantikaren instituzionalizazioa biztanle gehienek sinesmenetan eta alde zuzeneko kristalizazio erabakigarria lege eta arauetan.

Egiturazko estigma aintzat hartzen badugu, honek araudiaren azterketara eramango gaitu. Historian zehar, prostituzioa arautzeko sei eredu juridiko handi garatu dira. Honela, XIX. mendean arauketa edo erreglamentarismoa, abolizionismoa eta debekua sortu ziren eta, XXI. mendean gaudela, erregulazionismoa edo legeztatzea, neoabolizionismo nordikoa eta, azkenik, neozelandar despenalizazioa asmatu dira. Eredu hauen artean, zai-



netan dago kokatuta Espainiako testuingurua?

Lehenengo eta behin, Zigor Kodean erreparatu behar-ko genuke. Honek, batez ere 2003an egindako mol-daketaren ostean, Espainia estatu abolizionistatzat ez-augarritzen du. Honela, Zigor Kodean proxenetismoa delitutzat tipifikaturik dago; hortaz, ez du zigortzen prostituzio ekintza bera, baizik eta norbaiten prosti-tuzioari beste norbaitek etekin ekonomikoa ateratzea. Bestela esanda, adin nagusiko pertsonen prostituzio independentea legala da, nahiz eta ez egon lantzat ai-torturik, baina jarduera honetatik beste inork etekin ekonomikoa ateratzea delitua da. Hala ere, hierarkian azpitik dauden beste arau batzuetan erreparatzen ba-dugu, laster konturatuko gara arau abolizionista hori beste eredu juridiko batzuetako elementuekin nahas-ten dela.

Honela, bigarrenik, 80ko hamarkadatik legedi sozialak alterne jarduera (establezimendu batean edarien kon-sumoa handitzeko maite-jolasak) inoren konturako lantzat aitortu izan du. Alternatzaileek lan egiten dute “errenta bitartekaritza” deitutakoan aritzen di-ren enpresaburuentzat. Enpresa jarduera hau norba-nakoen prostituziorako gelak alokatzean datza eta, era berean, emakume hauek enpresaburuentzat lan egiten dute alternatzaile moduan. Bestetik, alternearen pa-tronala Auzitegi Gorenaren 2003ko ebazpen batek aitorturik eta babesturik dago. Elementu hauek, es-tablezimenduen kokapena arautzen duen Bilboko eta Kataluniako hirigintza-politikarekin batera, eta Estatu osoan klubei lizentzia eman ahal izateko arautegiare-



## PAULA SANCHEZ



Eskubideen aldeko aktibista eta ikertzailea. Filosofian lizentziatua (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, 2012), masterra Kulturaren Teoria eta Kritikan (Madrilgo Carlos III Unibertsitatea, 2012-2014) eta masterra bigarren zikloko eta batxilergoko irakasleen prestakuntzan (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2016).

Aipatutako lehenbiziko master horretan Aparteko Saria jaso zuen eta, ordudunik, prostituzioaren inguruan ikertzen hasi zen master amaierako lanerako. Gaur egun doktoretza amaitzen ari da: tesia prostituzioaren estigmaren ingurukoa izango da, landa-azterketan oinarrituta eta sexu-langile politizatuei egin-dako elkarrizketa erdiegituratu sakonen bitartez.

Landa-aztekerta bost urtetan zehar gauzatu du, Hetaira Kolektiboaren esku-hartze sozialeko boluntario moduan, Madrilgo kaleko prostituzio zonaldeetan.

Honetaz gain, 2017an ikerketarako egonaldia eman du Buenos Airesen eta bertan AMMAR sindikatuarekin batera aritu da.

Gaur egun Sevillako Prostituten Kolektiboarekin eta Madrilgo Villaverde poligonoko sexu-langileekin kolaboratzen du.



**Estatuaren egoerak erakusten digu abolizionismo, arauketa, debeku eta neolabolizionismoaren printzipioak konbinatzen dituen eredu juridikoen hibridoa.**

kin bat, erakusten digute Espainiak arauketa edo erreglamentarismoaren osagaiak hartzen dituela barne.

Azkenik, eta hirugarrenik, kaleko jardueran erreparatzen badugu, debeku itxurako egoera aurki dezakegu, Estatuko hainbat tokitan aplikatzen diren ordenantzen gain, maila nazionalean, ezarrita dagoen Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoagatik. Arauketa tresna hauek kalean bezeroak zuzenean hartzen dituzten emakumeak zigortzen dituzte, baina, honetaz gain, euren jarduera ere zeharka kriminalizatzen dute ordenantza batzuen eta Herritarren Segurtasun Legearen bitartez bezeroei jartzen zaizkien isunak direla medio. Honen ondorioz, filosofia neolabolizionistaren berezko elementuak ere aurkitzen ditugu. Hortaz, eta honen emaitzaz, Estatuaren egoerak erakusten digu abolizionismo, arauketa, debeku eta neolabolizionismoaren printzipioak konbinatzen dituen eredu juridikoen hibridoa.

Hemendik aurrera hibrido honek sorrarazten dituen eskubide urraketan jarriko dut arreta. Hala ere, aurreikus daitekeenez, urraketa hauek ez dauzkate suster berberak eta, hortaz, talde handi bitan bananduko ditugu: jardueraren kriminalizazioak sorrarazten dituen urraketak eta Espainian prostituzioak duen klandestinitate egoerak edo aitortza zabalago baten faltak sorrarazten dituztenak.

#### KRIMINALIZAZIOAREN ONDORIOAK

Hasteko, ordenantzek zein *Mozal legeak* bezeroak kaleetan hartzen dituztenen segurtasun juridikorako eskubidea urratzen dute. Honen arrazoia da botere publikoek arbitrarioki jokatzeko dutela –adibidez, euren burua identifikatzeko exijitzen diete, eskaera hau egiteko arrazoirik ez bada ere– eta nahi eran

<sup>1</sup> UCRIF, Immigrazio Ilegal eta Dokumentu Faltsutzearen kontrako poliziaren Unitate Zentrala.

ibiltzeko zein mugitzeko eskubidea mugatzen dutela. Honetaz gain, zigorrak diskriminaziozko tratuz ezartzen dira, hau da, genero eta arraza arrazoiengatik (bereziki emakume arrazializatuak zigortzen dituzte). Era berean, zigortzen diren jarduerak ez daude behar bezala definiturik eta, hortaz, ez dira jarduera zehatzak zigortzen, bazik eta kolektibo oso bat: kalean dauden prostitutak. Azkenik, ezartzen diren zigorrak ez dira arau-haustearen larritasunaren neurrikoak edo proportzionalak. Jokabideak nahiko definiturik ez dauden egoera honetan, poliziak interpretatzen eta erabakitzen du noiz jarri behar den isuna eta honek baldintza egokiak jartzen ditu poliziak nahieran eta arbitrarioki jardun dezan. Poliziaren honelako jardunbideek poliziaren botere gehiegikeriak ekar litzakete, Villaverden 2015an UCRIFeko<sup>1</sup> polizia batzuen aldetik gertatu zen bezala.

Bigarrenik, bai euren kontra bai diru-sarreraren iturria diren bezeroen kontrako zigorrak ekiditeko, emakumeak toki urrun eta txarto argiztatuetara mugitu ohi dira, poliziak aurkitzeko zailtasunak izan dituzan. Honek langilearen negoziazio ahalmena murrizten du, denbora laburragoa baitauka bezeroa ebaluatzeko eta praktikak, preterbatiboaren erabilera zein tarifa negoziatzeko. Honen ondorioz, kriminalizazioak indarkeria pairatzeko arrisku handiagoan jartzen ditu eta laneko segurtasuna murrizten die.

Bezeroak besterik ez zigortzeaz, garrantzitsua da ulertzea hein handiagoan eta ezinbestean eragina daukala jarduten duten emakumeengan. Arrakastatzat jotzen den hori, hau da, bezero gutxiago egotea, prostituzioan aritzen direnentzat diru-sarreraren jaitsiera, lehiaren igoera, desesperazio ekonomiko handiagoa eta prekarizazioa baino ez da. Bezero gutxiago badaude, emakumeek erabakitzen dute tarifak jaitea edo arau horiek baino lehenago errefusatuko zuketen bezeroak hartzea. Honela, euren lan baldintzen inguruko kontrolak behera eta presio ekonomikoak gora egiten dute. Bezero gutxiago egoteak diru-sarrera gutxia-



**Sarritan urratzen den beste eskubide mota bat eskubide sozialak dira; etxebizitza eskubidea eta osasun eskubidea.**





go izatea dakar eta hau, gainera, askotan areagotzen da irabaztea lortzen duten dirua isunak ordaintzeko erabiltzen baita. Gainera, bezeroak zigortzea, langileentzat bezeroentzat baino kaltegarriagoa izateaz gain, azken hauentzat onuragarria ere izan liteke, emakumeen kaltetan. Alde batetik, prezioak merketzea edo preserbatiborik ez erabiltzea bilatzen duten bezeroei mesede egiten die eta, honela, desesperazio ekonomikoaren erruz, zenbait zonaldetan prezio bikoitzeko sistema ezartzen joan da (diru gehiago praktika berberaren truke, baina preserbatiborik erabili gabe). Bestetik, gizon askok badakitenez zigortuak izateko arriskuan daudela, batzuetan hau aitzakiatzat erabiltzen dute nahi dituzten baldintzak inposatzeko. Azkenik, Bartzelonako ordenantzaren inguruko ikerketaren bitartez (Arce eta Bodelón, 2018), badakigu emakumeak bezeroak baino hiru bider gehiago zigortuak izaten direla. Hala ere, hau ezin da egiaztatu *Mozal legearen* kasuan, emakumeei ezartzen zaizkien zigorrak batez ere autoritateari desobedientziaren artikuluan oinarriturik baitaude eta, epigrafe honen pean herritar guztiak zigortuak izan daitezkeenez, ez daukagu datu bereizturik hau baieztatu ahal izateko.

Prekarizazioak, gainera, osasun arazoak ekartzen ditu, hala nola estresaren handiagoa, substantzien kon-

tsumoa eta depresio sintomen prebalentzia (Médecins du Monde, 2018). Bestetik, errepresio eta zigor egoera hau ezarri da behar bezala ordaindutako alternatiba errealarik eskaini gabe, sexu-lana uztekoan. Aitzitik, sexu-lana uzteko kurtsoak, oro har, prestakuntza-aren lehenbiziko moduluak bekatzera mugatzen dira eta, gainera, prestakuntza hau lan feminizatu eta prekarioetara dago bideratuta, prostituzioan aritu baino lehenago, emakume horiek gehienetan egiten zituzten lanak, hain zuzen ere; eta lan horiexen prekaritateagatik aukeratu zuten orduan prostituzioa. Azkenik, jazarpen poliziala, isunek eta diru-sarreraren jaitsierak hainbat emakume bultzatzen ditu beste herrialde batzuetara migratzera, non, esaten denez, “gehiago irabazten den”, eta beste hainbat emakumek erabakitzen dute hirugarren batentzat hastea lanean.

#### KLANDESTINITATEAREN ONDORIOAK

Prostituzioa alegalitate egoeran egonda, urratzen diren eskubideak dira, lehenago eta behin, lantzat ez aitortzeak dakartzan guztiak: lan eskubideak. Era berean, ongizate jendarte deitutakoetan lan eskubideak izaten dira eskubide sozial eta zibil osoak eskuratu ahal izateko bidea. Honetaz gain, kontuan hartzen badugu jardueran dauden emakumeen %90 migranteak direla, prostituzioa lantzat ez aitortzeak emakume hauek

bazterturik uzten ditu bai eskubide titulartasunetik, bai herritar estatusetik, eta erregularizatzeko zailtasun handiagoak ekartzen dizkie.

Lan eskubiderik ez daukatenez, prostituzioan aritzen diren emakumeek ez daukate inolako lan babesik eta honek ahultasun egoera areagotzen du haurdun geratzen direnean, gaixotzen direnean edo nagusitzen direnean (Arella *et al.*, 2007). Egoera hauetan lan egiteari utzi behar izaten diote eta, hortaz, diru-sarrerak jasotzeari eta, gainera, hirugarren batentzat lan egiten badute, seguruenik bat-batean kaleratuak izan daitezke, finikitorik gabe, kalte ordainik gabe eta langabezia eskubiderik gabe. Ez daukate soldata bat jasotzeko eskubiderik eta diru-sarrerak beti egoten dira egiten duten zerbitzu kopuruaren menpe zein praktikak gauzatu baino lehenago diru hori eskuratzeko daukaten abileziaren menpe. Alterne klubetan lan eginez gero, ohikoena da klubak euren diru-sarreraren zati batekin geratzea, gelaren egunez-eguneko ordainketaren bitartez (70 euro inguru). Zita-etxeetan edo pisuetan lan egiten dutenean, bestalde, normalena izaten da zerbitzu bakoitzeko portzentaje bat atxikitzea (%40 eta %60 tartean).

Inoren konturako lantokietako baldintzak anitzak dira zeharo, baina guztietan, tresna juridikorik eta eskubiderik faltan, enpresaburuek nahi dituzten lan baldintzak inposatu ahal izateko ahalmena mugagabea da. Honen ondorioz, alegalitate egoerak esplotazio laboralerako baldintza egokiak ekartzen ditu eta, hortaz, emakumeak 14 orduz etengabe lanean egon ahal dira edo, askotan, hainbat praktika egitera behartuta egoten dira, hala nola preserbatiborik gabeko felazioak. Era berean, inoren kontura lan egiten duten emakumeek ez daukate ordaindutako oporrik, gauzez lan egiteagatik plusik edo aparteko ordurik, ez izateagatik, hitzartutako atsedenaldirik ere ez daukate. Atsedenaldirak aste erdikoak izaten dira, hilabetean behin, menstrua izaten dutenean; hala ere, krisialdi ekonomikoarekin esponja baginalen erabilera orokortu da

eta, hortaz, askotan hainbat hilabetetan zehar ez diote lan egiteari uzten. Alterne klubetan plaza-sistema ohikoa da: emakumeak lan egiten duten toki berean bizi dira eta, askotan, jardunalditik jardunaldira 12 orduko atsedena hartzeko eskubidea ere urraturik izaten dute. Hau dela eta, lan egiteari utziz gero, posible da lana ez ezik, bizilekua ere galtzea.

Alterne klub askotan langileek esplotazio ekonomikoa pairatzen dute, gelaz aparte, behar duten edozer ordaindu behar dutelako: jatekoa, altzariak, tresneria, arropa... Hiriguneetatik urrun dauden establezimenduak izanda, emakumeek ez daukate hurbil beste tokirik eta klubek egoera hau aprobetxatzen dute prezioak igotzeko. Bestetik, langileek ez daukate inolako bermerik lantokietako osasun eta higiene egoeraz, ezta preserbatiboen erabileraz eta, askotan, alkohola eta kokaina hartzera bultzatzen dituzte, bezeroek ere gauza bera egin dezaten, langile hauen osasun eta askatasun eskubideak urraturik. Lan harremana aitortzen ez denez, ez daukate Gizarte Segurantzarik eta honek berarekin batera dakarren guztia, hala nola prestazio sozialik, gaixotasun baxarik, langabezia eskubiderik edo erretiro pentsiorik. Era berean, 2018ko abuztuan egiaztatu genuenez, ez daukate sindikatze, grebarako edo negoziazio kolektiborako eskubiderik. Azkenik, lan harremana aitortzen ez denez, ezin dituzte honelako arazoak salatu, esplotazio sexuala baita epaitegietako erantzuna aktibatzen duen bakarra.

Sarritan urratzen den beste eskubide mota bat eskubide sozialak dira. Hauetako lehenengoa etxebizitza eskubidea da, ez baitituzte gutxieneko baldintzak betetzen, hala nola nomina edo diru-sarreraren justifikazioa, bai alokatzeko, bai hipoteka-mailegua eskatzeko. Zorte handikoek autonomo moduan eman dezakete alta edo logelaren bat alokatu ahal dute konfiantzazko norbaitek alokatu nahi badie, baina gehienak alterne klubetan bizi dira, bertan pasaportea baino ez baitiete eskatzen, edo pisuetan bizi dira, non poliziak ezin diren sartu agindu judizialik gabe. Urratutako bigarren



“

Askotan epai matxistek uste dute ezinezkoa dela prostitutak bortxatzea.

Ordenantzek zein Mozal legeak zigortzen dituzten jarduerak ez daude behar bezala definiturik eta, hortaz, ez dira jarduera zehatzak zigortzen, bazik eta kolektibo oso bat: kalean dauden prostitutak.



eskubidea osasun eskubidea da, batez ere arreta sanitarioa jasotzekoa. Arreta hau jaso ahal izateko, osasun txartela beharrezkoa da eta txartel hau eskuratu ahal izateko, alde aurretik errolatuta egon beharra dago. Hala ere, egoera administratibo irregularrean dauden hainbat emakume migrante beldur dira poliziek errol-dako informazioa eskuratuko ote duten eta informazio horrekin kanporatzeko agindua emango ote duten eta, horregatik, ez dira errolatzen. Beste emakume batzuek ez daukate inolako dokumentaziorik errolda tramitatu ahal izateko, bai trata egoeran daudelako, bai sare baten bitartez migratu direlako eta sare horrek pasaporte botatzeko aholkatu dielako, asiloaren alde borrokatzea errazagoa izango zaien beste herrialde batekoak direla esan dezaten. Edozelan, gai honetan aritzen diren zerbitzu publikoen akatsak, hein handi batean, erakunde pribatuek betetzen dituzte; baina, askotan, emakume hauek GKEekin harremanetan jarriko dira euren eskubideak ezagutzen dituzten heinean, baita sexu-transmisio bidezko infekzio asintomatikoak ezagutzen dituzten neurrian ere. Horregatik, beharrezkoa da berriro ere nabarmentzea jardunaren kriminalizazioak –emakumearen edo bere inguru osoaren kriminalizazioak- eremu gero eta ilunagoetara eramaten dituela; honela, erakundeentzat ere gero eta zailagoa izaten da euren gana heltzea, eta honek guztiak sexu-langileak egon daitezkeen ahulezia egoera larriagotu baino ez du egiten.

Azkenik, segurtasun eskubidea aipatu beharra dago eta, zehazkiago, eztabaidetan hainbestetan erabiltzen den sexu-indarkeriaren aferari dagokionez. Amnistia Internazionala erakundeak zera dio:

*[Onespina] ekintza sexual espezifiko bat gauzatzeko akordioa da, borondatezkoa eta indarrean dagoena. Onesteak ez du esan nahi indarkeria onartzen denik. Sexu-langileek, edozein pertsonak bezala, edozein momentutan lan harremanak izateko edo zerbitzu sexualak saltzeko euren onespina alda dezakete edo atzera egin dezakete, eta hau alde guztiek*

*errespetatu behar dute (bezeroek, balizko bezeroek, hirugarren pertsonak, polizia, epailek eta legea betearazteko ardurak daukaten beste funtzionarioek). Onespina borondatezkoa ez denean eta indarrean ez dagoenean —eta azken honek barne hartzen du ez errespetatzea pertsona batek onspen hori aldatzen edo kentzen duenean—, praktika sexuala bortxaketa da eta delitutzat jo behar den giza eskubideen kontrako abusua da. Onspenaren analisisa espezifiko da kasu eta testuinguru bakoitzeko, eta onspenaren gaiari dagokion edozein hausnarketatan lehen tasuna eman behar zaie sexu-zerbitzuak saltzen dituzten pertsonen iritziri, ikuspegi eta esperientziei. Legea betearazteaz arduratzen diren poliziek, gobernu organoek eta bezeroek sarritan suposatzen dute, estereotipoetan oinarriturik, sexu-langileek beti ematen dutela euren onspena sexu harremanak izateko (posible delako, euren lana dela eta, sexu harremanak izatea) edo, aitzitik, ez luketela sekula sexu harremanak izateko onspenik eman behar (inork ez lukeelako, zentzuz, zerbitzu sexualak saltzea onetsiko). Suposizio hauek bide ematen diete sexu-langileen giza eskubideen urraketei, bereziki euren segurtasunari, justizia eskuratzeari eta legearen aurrean babes berdintasunari dagokienez. Sexularen penalizazioak sarritan suposizio gatazkatsu hauek indartzen ditu. (Amnistia Internazionale, 2016:18).*

Askotan epai matxistek uste dute ezinezkoa dela prostituta bortxatzea. Pentsamolde misogino honen arabera emakume “garbiak” edo erreputazio sexual “uki-gabea” daukaten emakumeak baino ezin dira bortxatu; emakume hauen aurrean sexu-langileak emakume “eskuragaitzat” jotzen dira edozein ekimen sexualetarako, izan hain onetsia ala ez. Nire tesi doktoralerako kanpo lanetan eman nituen urteetan zehar ezagutu nituen hainbat sexu-langilek poliziarengana jo zuten sexu-erasoa salatzeke, baina poliziak ez zituen salaketak tramitatu nahi izan, horrelakoak “lanaren gaitzak” direla argudiatuta. Kontrako norabidean, abolizionismoaren sektorerik fundamentalistenarentzat prostituzioaren definizioa ordaindutako bortxaketa da, prostituta beti eta momentu oro bortxatuak izaten direla iritzirik. Ikusmolde biak kosmobisio antitetikoetatik datozen ere, errealitatea “inoiz ez” eta “beti” irizpideetatik epaitzen duten epaiak, errealitatean, oso gertu daude elkarrengandik eta ondorio berberak ekartzen dituzte, indarkeria hautemateko eta salatzekeko prozedura oztopatzen baitute. Bestela esanda, indarkeria unibertuala eta etengabea dela estimatzen denean, oso zaila da mailaketak antzematea eta kasu bako-

itzerako interbentzio eraginkorrak diseinatzea. Honez gain, iritziri biek emakumeen testigantzen sinesgarritasuna murrizten dute eta, azken batez, babesgabe-tasun juridikoa areagotzen dute. Izan ere, sexu-langileen kolektiboa ez da normalean poliziarengana joaten salaketak jartzeko eta, gainera, babes judizial eraginkorra behin eta berriro urratzen zaie. Hau gertatzen da jazartzen dituen poliziarengan batere konfiantzarik ez daukatelako, baina, honetaz gain, maiz euren egoera administratiboa irregularra izaten denez, beldur dira komisaldegira joanez gero, honek ez ote duen ekarriko kanporatze agindu baten tramitazioa. Beste kasu batzuetan, emakumeek ez dute salatzen ez dutelako nahi prostituta direla jakitea eta, hortaz, kasu haue-tan estigma bera da euren babesgabezia elikatzen duena. Kontuan hartu behar da, honen ildotik, estigma maila sozialean pairatu ez ezik, barneratu ere egiten dela. Barneratzen den hori prostituzioaren inguruko epai sozialak dira, hainbat geruza historiko sorrarazi dituztenak: emakume gaiztoa, bekataria, biktima eta delitugilea.

#### AMAITZEKO...

Abolizionismoaren sektore batek behin eta berriro azaltzen du eskubideen aldeko eztabaida maulatia dela, baita faltsua ere, “euren borondatez” prostituta direnak autonomo moduan eman ahal dutelako alta, hala nahi izanez gero, eta horrela eskubideak eskura ditzaketela. Hala ere, kontrakarrean jartzen duten azalpen honek ez du kontuan hartzen, lehenik, jardunean dauden emakume gehien-gehienek ezin dutela autonomoetan altarik eman: migranteak direlako, euretako batzuk egoera administratibo irregularrean, edo prekarioak direlako eta ezin diotelako kuotari aurre egin. Hala eta guztiz ere, bigarrenik, autonomo egiteko aukera sektore batentzat beharrezkoa eta egokia bada ere, ezin da aukera bakarra izan, aukera honek ez entzunarena egiten baitio babes laboral espezifikoaren eskaerari eta ez duelako konpontzen migranteen kolektiboaren erregularizatzeko premia. Usterik zabalduenaren kontra, enpresaburuek ez dute inoren konturako prostituzioa erregularizatzea nahi, baizik eta errenta-bitartekaritza moduan daukaten estatusaren legalitatea bermatu, horrela jardueraren diru-irabazi garbiak jaso ahal izateko eta, era berean, ardurak laboralak, kotizazioak eta sor litezkeen gatazka penalak ekiditeko. Horrexegatik euren langileak autonomo (faltsu) moduan altan ematea estrategia ohikoa eta gogokoena daukate. Azkenik, bada sexu-langile independenteen kolektibo bat autonomoetan alta eman dezaketenak, baina ez egitea erabaki dutenak desobediencia zibilaren printzipioarekin bat egiten





dutelako, sufragistek lehen olatuan egin bezala. Bestela esanda: *No taxation without representation*. ♦

#### ■ Bibliografía

AMNISTIA INTERNAZIONALA (2016). *Política de Amnistía Internacional sobre la obligación del Estado de respetar, proteger y realizar los derechos humanos de las trabajadoras y los trabajadores sexuales*. Recuperado de <https://www.amnesty.org/download/Documents/POL3040622016SPANISH.pdf>

ARELLA, C; FERNÁNDEZ BESSA, C; NICOLÁS LAZO, G. y VARTABEDIAN, J. (2007). *Los pasos (in) visibles de la prostitución. Estigma, persecución y vulneración de derechos de las trabajadoras sexuales en Barcelona*. Barcelona: Virus.

BODELÓN GONZÁLEZ, E. y ARCE BECERRA, P. (2018). La reglamentación de la prostitución en los ayuntamientos: una técnica ficticia de seguridad ciudadana. *Revista crítica Penal y Poder*, 15, pp. 71-89.

GOFFMAN, E. (2015 [1963]). *Estigma. La identidad deteriorada*. Buenos Aires: Amorrortu.

LINK, B. G. y PHELAN, J. C. (2001). Conceptualizing stigma. *Annual Review of Sociology*, 27, pp. 363–385.

MÉDECINS DU MONDE (2018). *What do Sex Workers Think about the French Prostitution Act? A Study of the Impact of the Law from 13 April 2016 Against the 'Prostitution System' in France. Synthesis*. Recuperado de <https://www.medecinsdumonde.org/sites/default/files/ENGLISH-Synthèse-Rapport-prostitution-BD.PDF>



# Zergatik da beharrezkoa sexu-langileak sindikalizatzea

## Prozesuak, ahalduntzea eta aitortpena

PAULA EZKERRA

---

**E**gun on denoi. Lehenengo eta behin, jardunaldi hauek antolatu izana eskertu nahi dut. Eskertu nahi dut ahalegin erraldoi hau eta erakutsi diguzuen errespetua, sexu-langileoi eta aitortuak izateko prozesuan laguntzen gaituztenen pertsoneri ere bai.

Prozesu sozial guztietan, bilakaera guztietan, nahi dugun jendartearen inguruko hausnarketa guztietan, garrantzitsua da sexu-langileok beteko dugun tokiaz hitz egiten dugunean, gu geu izatea berba egiten dugunok. Garrantzitsua da esparru hau ez betetzea diskurtso akademikoekin besterik ez edo hitz bakoitzak esan nahi duenaren inguruko hausnarketa sakonekin. Hori ondo dago ikasteko, gure diskurtsoei gaitasun analitiko emateko balio digu eta laguntzen digu ikusten non gauden borrokalari, jendarte honetako partaide eta errealitate honetako ordezkari moduan. Diskurtso eta azterketa akademikoak ondo daude, baina ezin dute gure ahotsa ordezkatu, ezin digute lapurtu geuri buruzko, sexu-langileoi buruzko, elkarrizketan parte hartzeko eskubidea.

Gaur IAC, Intersindical Alternativa de Catalunya ko ordezkari legez hitz egingo dut, sindikatu honetako sail sindikal bareko ordezkari legez. Sail sindikal hau Estatu osora zabalik dago, onartutako estatutuak dauzkan eta sortu den bakarra baita. Eta, hortaz, sexu-langileak bertan sindikalizatzea animatzen ditugu.

Sexu-langileen prozesu politikoa partekatuko dut zuekin, Katalunia mailan, Estatu mailan, baita nazioarte mailan ere. Mundu osotik zehar gauzatzen ari garen

prozesuan izan ditugun esperientzien inguruan hitz egingo dizuet. Eta honi gehituko diot hartu dugun norabidearen inguruko hausnarketa. Ereduei buruz hitz egingo dut eta sexu-lanaren aitortpena ze modutan birplanteatu nahi dugun ere azalduko dut.

Berriro nabarmendu nahi dut ze garrantzitsua den trata, lana, sexu-esplotazioa eta lan esplotazioa bereiztea. Terminologia hori guztia oso inportantea da, gauza bakoitza zer den ulertzea erabakigarria da. Eta garapenen zein fantasien inguruan ere egingo dut hausnarketa, Putas Indignadas taldetik natorrelako eta han denetarik daukagulako: anarkistak, antikapitalistak, antisistema... taldearen iruditeria ideal batean oinarritzen da: gure lanaren aitortpenaren erabateko autonomiaren ideala, inoren konturako lana gogoan erabili edo zalantzan jarri barik.

Sexu-langileak mundu osoan ari dira prozesuak gauzatzen. Sexualitateak emakumeon gorputzetan duen esanahia historikoki jazarria izan da eta hau are latzagoa da sexu-langilea bazara, lan horretatik bizi bazara. Bizirauteko moduak ezkutatzea zaila da. Eta guk bizirauteko moduak ezkutatuak izanda, pribatua eta publikoa. Eta jazarriak izaten gara arrazoi horretxegatik. Poliziak jazarriak, legeek jazarriak. Ezagutzen gaituzten pertsonak, senideek... zemaizten edo estorsionatzen gaituzte... Eta honen guztiaren atzean estigma dago. Estigmak esan nahi du, batez ere, botererik ez daukazula.

Norberak estigma hori apurtzen duenean, boterea





## PAULA EZKERRA

eskuratu egiten du, horixe da aktibismoan gaude-nok sentitzen duguna. Ikusgarritasuna lortu dugun sexu-langileok ez gara honezkero estigmaren beldur eta kontraboterearen aldean kokatzen gara. Patriar-katuarekin apurtzeko pausoa egin eta arrakala txiki bat zabaldu dugu. Hauxe bera da gauzatzen ari garen prozesuek daukaten balio handienetako bat, kolekti-boarentzako balioa, geure buruarentzako balioa.

Sexu-lanaren mugimenduen barruan denetarik dago. Akademikideetatik prestakuntzarik gabeko sexu-langileetaraino. Prozesu hauek eskarmentua hartzeko balio digute, elkarlanean aurrera egiteko. Egiten ari garen bide horretan, 2006an egin genituen nazioarteko jardunaldiak nabarmenduko ditut.

Urte hartan sexu-langileen nazioarteko topaketak burutu ziren, Bruselan. Topaketa hauek batez ere Europa mailakoak izan baziren ere, Kanada, Estatu Batuak edo Australia bezalako herrialdeetako kideek ere hartu zuten parte. Biziki interesgarria izan zen. Bertan 2.000 sexu-langile hasi ginen hausnartzen ea norantz nahi genuen sexu-lanaren aitorpena bideratzea eta zeintzuk ziren sexu-langileok egiten ditugun eskaerak.

Geure buruari galdetu genion lehenbiziko gauza izan zen ea zergatik geunden han elkaturik. Zer ote nahi genuen. Lanaren esanahiaz luze aritu ginen. Eta honako esaldi hau sakon aztertu genuen: *“LANA. Gazteleeraz “trabajo”, “trabajar” berbatik datorrena; eta azken hau latinezko “tripaliare” hitzetik. Tripaliare,*



Feminista antikapitalistatzat definitzen du bere burua, ezaugarriok bata bestetik ezin banandurik, bai bere pentsamendu politikoan, bai eta bere eguneroko bizitzan ere. Gaur egun sexu-langilea da eta IACko (Intersindical Alternativa de Catalunya) ordezkari sindikala; sindikatu horretako sexu-lanaren sail sindikalaren sortzaile/fundatzaileetako bat izan da eta, momentuz, prestaketetan dagoen Sexu-Lanaren Batasun Sindikalaren proiektuaren sortzaileetako bat ere bai.

17 urterekin hasi zen Argentinan giza eskubideen inguruko hainbat mugimendutan parte hartzen; ordudaniak aktibismo ibilbide luzea jorratu du hainbat mugimendu sozial, feminista, anarkista, LGTBI, okupa eta abarretan eta hauetan guztietan parte hartu du beti feminismotik.

1999an, Bartzelonan, sexu-langileekin lanean hasi zen.

2005ean Sexu-Langileen Nazioarteko Topaketetan hartu zuen parte.

Putas Indignadas elkarteko bozeramailea izan zen eta Putas y Alianzas taldeko ordezkaria. Bartzelonako Ciutat Vella barrutiko kontseilaria izan da CUP ordezkatzan. Liburuetako artikuluetan, elkarriketetan edota dokumentaletan kolaboratzen du.

Lan eskubideen, feminismoaren eta sexu-lanaren inguruko aholkularitza eta hitzaldiak ematen ditu



“

Sexualitateak emakumeon  
gorputzetan duen esanahia  
historikoki jazarria izan da  
eta hau are latzagoa da  
sexu-langilea bazara, lan horretatik  
bizi bazara. Bizirauteko moduak  
ezkutatzea zaila da. Eta guk  
bizirautean dugu, sexu-langileak  
izanda, pribatuan eta publikoan.  
Eta jazarriak izaten gara arrazoi  
horretxegatik.



*tripalium (hiru makil) hitzetik. Tripaliuma hiru (tri) makilekin (palus) egiten zen uztarria zen; esklaboak lotu eta jipoitzeko uztarria*”. Horixe esan nahi du lanak: esklabotza. Hori al da duindu nahi duguna?

Jarraitu beharreko lehen eredia edo helburu premiazkoena izan zen sexu-lana despenalizatzeko premia. Sexu-langileak zehatuak edo zigortuak izan ez daitezela lortzea. Eta premia hau nazioarteko testuinguruan kokatzen dugu. Munduko hainbat herrialdeetan erabiltzen den bortxaz ari gara; hau intentsitate ezberdinekoa izan liteke, jendarte edo kultura bakoitzean emakumea izateak esan nahi duenaren arabera. Hilketak edo talde bortxaketetatik, isun edo jazarpenetara doazen mailetaz ari gara. Eredu, lege edo ordenantzarik ez dagoenean ere, sexu-langileak jazarriak izaten dira, modu berean hainbat herrialde ezberdinetan, eta horren arrazoia estigma baino ez da.

Galdera anitz egiten genizkion geure buruari: norantz gindoazen? zein zen gure lehenbiziko pausoa? nahi al dugu sexu-lana aitortua izatea? ba al daukagu partekatutako idealik, orokorra eta nazioartekoa, aitortpen honen ibilbideaz? Ez. Ez geneukan. Baina gauza asko bai partekatzen genituen: zer ez geneukan, zer ez genuen nahi, nondik ginen igaroak. Gutako asko edo gehienok migratutako emakumeak ginen.

Erdietsi genuen ondorio nagusia, gaur egun erabat indarrean dagoena, zera izan zen, aldarrikatzen dugun eredia sexu-lanaren eskubideen aldeko eredia dela. Eta pankarta nagusia, borrokarik garrantzitsuenak, penalizatuak edo zigortuak ez izatea. Ez gaitzatela inolaz jazarri. Estigmarekin apurtu. Eskubideetan aurrera egin.

Eskubideez hitz egiten dugunean, oinarrizko eskubideez ari gara, mundu guztiak dauzkan eskubideez. Zergatik sexu-langileek ezin dute izan gainontzeko pertsona guztiek dauzkaten eskubide berberak? Zergatik sexu-langileek ezin dute ahots propiorik izan,

emakumeen gainontzeko kolektiboek bezala? Inork ez dio bere buruari honelakorik galdetzen. Inork ez ditu botere juridikoak, Estatuak, segurtasun indarrak interpelatzen. Gu bai gaituzte interpelatzen, egiten duguna txarto dagoela esaten digutenean. Zer da txarto dagoena? Sexua diruaren truke. Sexuagatik kobratzea. Hori besterik ez.

Itzul gaitezen gaur egunera eta ekar dezagun eztabaida gure eremura. Hemen ere anbiguetatea da eredu sexu-lanari dagokionez. Espainia hiru eredu nahasketa da. Erregulazionismoa, enpresaburuak aitortzen dituelako. Debekua, legeek -guztiek edo gehienek- batez ere langileak jazartzen dituztelako, eta jazarpen hau larrigoa izaten da norberaren itxuraren arabera, segun eta nolakoa zaren, zelan defendatzen zaren edo zelan hitz egiten duzun. Segun eta antolatuta zauden ala ez.

Eta hirugarrenez, abolizionismoa daukagu; hainbat legegik uste baitute gure errealitatetik salbatuko gaituztela, prostituziotik atera eta egoera hobe batean edo herritartasun estatus hobeago batean jarriko gaituztela. Hori bai, proposatzen diguten balizko estatus hori ez da hobeagoa edo interesgarriagoa. Lan prekarizatuak dira, historikoki emakumeok egin izan ditugunak. Eta arazoa ez da garbitzea edo zaintzea. Eta orain feminista naizen aldetik hitz egingo dut. Arazoa da ikuspegia, politikak eta legeak aldatu behar ditugula, zaintzen eta maitatzen dugun pertsonak, popak garbitzen ditugun emakumeok, seme-alabei jaten ematen diegunok edo amatasunean edo dena delakoan aritzen garenok behar den bezala eta benetan garenaren arabera ordainduak izan behar gara: jendarte honen eraikitzaileak garelako eta bizi garen sistema sozial honen funtsezko oinarria garelako. Hau guztia barik, sistema kapitalistak ezingo lukeelako inoiz aurrera egin.

Despenalizazioaren aldeko eta jazarpenaren kontrako borrokarekin batera, estigmaren afera ere badaukagu. Beste kolektibo batzuk ere, hala nola LGTB kolektiboa, prozesu honetatik pasatu dira. Estigmaren afera

armairutik irteteen ere badatza, nor bere buruarekin ondo sentitzean; sexu-lana aukera bat dela ulertzean. Eta "aukera" kaxotxoaren artean jarriko dugu, sistema kapitalista honetan aukerak oso murrizak direlako. Denok egiten dugu lan, jateko premia daukagulako, gustatzen ez zaizkigun ordutegiak betetzen ditugu. Nahiz eta kantariak, aktoreak edo txalotuak diren lanbideetakoak izan. Nahiz eta egiten duguna gutukoa izan. Nahiz eta akademikoak izatea aukeratu eta kristorenak eman tesia egin bitartean. Den-denak estresatuko gaitu, gure lanbidea edozein dela ere. Eta sexu-lanak ere bai. Eta puta izatea gorroto dut, baina are gehiago dirurik ez edukitzea kontuak ordaindu eta biziraun ahal izateko.

Prozesu politiko hauek, lehenengo eta behin, geure burua antolatzea eraman gaituzte. Bartzelonako kasu espezifikoa arituko naiz, Katalunia izeneko herrialde zoragarriak eman digun erakunde zoragarri bateko parteidea naizelako. Momentu honetan gure herrialdea Estatuaren errepresioa pairatzen ari da eta gu horixe gaude, Kataluniako Herriarekin batera.

Elkarrekin hazteko aukera izan dugu. Elkarte eta emakume txundigarriekin elkartzeko aukera izan dugu eta hauek guri entzuten jakin dute eta ulertu dute beharrezkoa dugun erreminta ez dela biktimizazioa, ez dela morroikeria, baizik eta sexu-langileen kolektiboaren politizazioa eta ahalduntzea.

Gu geu horixe aldarrikatzen ari ginen, baina horrextan datza estigmaren zama eta prezioa: ez genekien zelan adierazi, momentu hartan (duela hainbat urte) ez geneukan bitartekorik edo diskurtsorik ikustarazteko langile eta herritar moduan aitortuak izateko aldarrikatzen dugula. Bereziki garrantzitsua da ulertzea lanaren aitortzea eta herritartasunaren aitortzea estuki loturik daudela.

Hainbat prozesu politikoren ostean eta elkarlan handia egin ondoren, gaur geure eskubideen alde borrokan



**Ikusgarritasuna lortu dugun**

**sexu-langileok ez gara honezkero**

**estigmaren beldur eta kontraboterearen**

**aldean kokatzen gara. Patriarkatuarekin**

**apurtzeko pausoa egin eta arrakala txiki**

**bat zabaldu dugu.**

dihardugu. Mota askotako mugimenduekin batera egin dugun ibilbidea izan da (okupekin, anarkistekin, feministekin, pentsioen, jendartearen eta abarren inguruan hausnartzen duten mugimenduekin). Mugimendu hauek auzoetakoak dira, batez ere, eta oinarri komuna partekatzen dute: sistema kapitalistarekiko apurketa aldarrikatzen dute.

Eta prozesu honen bitartez, nazioartean loturak ehundu ahal izan ditugu sexu-langileen beste elkarte edo mugimendu batzuekin. Gure ideologiarekin antzekotasun handiagoak edo txikiagoak izan, edozelan lehenbiziko pausoaren alde ari gara lanean: zigorrik ez, jazarpenik ez, ez gaitzatela baztertu edo diskriminatu eta ez diezagutela ukatu gure bizitzen eta gure gorputzen gainean erabakitzeke ahalmena.

Prozesu zoragarri eta luze-zabal honetan zehar, Kataluniako sexu-lanaren eskubideen aldeko asanblada anti-kapitalista eta feministatik pasatu gara. Putas Indignadas taldetik pasatu gara. Hainbat elkartetatik. Alderdi politikoekin ere egin dugu lan eta euren zerrendetan joatea eskaini digute, hori ere aitorpenerako modua baita. Ikasi egin dugu. Hazi egin gara.

Orain inork ez du gure ordeztu hitz egiten. Inork esaten badu gure lekuan ari dela, hori ez da hitz egitea, hori zapaltzea da. Gure ahotsa isilaraztea da, Espainiako Estatuan bizi den beste edozein pertsonak dauzkan herritartasun eskubideak guri kentzea da.

Eta ibilbide honetan aztertzen ari gara zein izan behar den hurrengo pausoa, honezkero hainbat gauza lortu ditugulako. Gure ikusgarritasunaren alde borrokatu gara eta orain ikusgarriak gara. Gaur hemen egotea lortu dugu, sexu-lanak jendartearen zer esanahi daukan eztabaidatzen. Eta hau ez da Euskal Herrian, Katalunian edo Espainiako Estatuan besterik egiten ez den

zerbait, mundu zabalean irekirik dagoen eztabaida da. Munduko hainbat herrialdetan, behintzat. Sexu-langileok eztabaida honetan ahotsa daukagu, gure hitza hortxe dago. Eta hitz hori sexu-langileen mugimenduok ematen ari gara.

Katalunian ulertu genuen hurrengo pausoa zela lagundurik sentitzea eta lan eskubideen alde borrokatzeko prozesua egin zutenengandik ikastea. Eta non aurkitu talde horiek? Sindikatuetan.

Ez da erraza izan. Hainbat urtetan hainbat sindikaturekin batzarrak egin ditugu. Eta erantzuna ez zen “*ondo, ba, egin ezazue hemen sail sindikal bat eta zuek nahi duzuen guztia hementxe izango duzue*”. Sail txiki bat eratzeko aukera ematen ziguten eta, denborarekin, posible bazen, uzten baziguten, botoa ematea lortzen bazen... agian eta beharbada prozesuaren amaieran puten sail sindikal bat osa genezakeen. Ez gara sindikatu batez ari, sail sindikal batez baino.

Prozesu hauei eta urteetan egindako lanari esker gu ere hazi egin gara. Sindikalizatzeak esan nahi duenaz ikasi dugu, lan zuzenbideak dakarrenaz, gure norabideaz ikasi dugu. Sindikalistekin hitz egin eta eztabaidatu dugu eta behin galdera zehatz bat bota nuen: sindikatu bat klub batera sartzen bada eta trata egoerak aurkitzen baditu, edo sexu-lana erregulaturik egonez gero, edo beste lanbideren bat balitz, sindikatu horrek horren inguruan interpela lezake edo ekin lezake? Erantzuna baiezkoa izan zen. Guk ondorioztatu genuen egin daitekeela, bideragarria dela eta guztiz garrantzitsua dugula sindikatuarekin batera jardutea sexu-lana aitortua izan dadin. Zergatik?



**Aldarrikatzen dugun eredu**

**sexu-lanaren eskubideen aldeko eredu**

**da. Eta pankarta nagusia, borrokarik**


**garrantzitsuena, penalizatuak**

**edo zigortuak ez izatea. Ez gaitzatela**

**inolaz jazarri. Estigmarekin apurtu.**

**Eskubideetan aurrera egin.**





Lehenengoz, sindikatuek lortu eta metatu duten esperimentziagatik. Bigarrenez, guk ez diogulako eurekin batera borrokatzeari utziko. Eta, hirugarrenez, beste kide batzuek gu onartzen gaituztenean, honek ere laguntzen duelako estigmaterekin amaitzen. Elkarlan horren bitartez, elkarrekin eraikitzen dugulako. Eta eraikuntza kolektibo hau beharrezkoa da. Gu ez gara jendartetik baztertutako pertsonak, jendartearen parte gara. Eta hortxe egon behar gara, gure eskubideen alde borrokan, beren eskubideak edo herritartasun esparrua errespetatzen ez direla ikusten duten beste lagunekin batera. Kasu honetan, aitortzen ez dena geure lana da.

Sindikalizazio prozesua luzea, latza eta gaitza izan zen. Galdera asko erantzun behar izan genituen. Eta askotan zail egin zitzaigun. Ez da erraza erantzutea proxenetak ote garen galdetzen digutenean, edo enpresaburuak babesten ari ote garen... Nahiago genuke guk, enpresaburuak existituko ez balira eta pertsona guztiok, baita sexu-lanetik kanpo ere, beste eraikuntza ekonomiko bat izango bagenu! Eta kapitalismoa ere existituko ez balitz. Nahiago genuke, baldinbere! Baina nik galdetu nahi dut, eta abolizionista bati halaxe galdetu nion: zuk jasotzen duzun dirua ere sistema kapitalista eta patriarkaletik dator, abolizionista izan

arren. Nik neure bezeroarengandik jasotzen dudaren berdina da, behar ditudan gauzak erosteko eta behar dudana ordaintzeko erabiltzen dudana diru berbera. Arazoa ez da prostituzioa, arazoa sistema kapitalista da.

Elkarrekin lan egingo badugu, elkarrekin egin beharko dugu sistema honen kontra. Eta puta izateak dakarren estigmaren kontra borrokatzea izan beharko da gure abiapuntua. Utz diezaiogun elkarri esateari zer egin behar dugun eta zer ez; guk ere ezin diogu inori esan zer ahal edo ezin duen egin. Nik uste dut jendeak, jende guztiak, oro har, jendarte bidezko edo ekitatiboago baterantz egin nahi duela. Eta jendarte bidezkoago honek hainbat kontu utzi behar dituela atzean: aurreiritziak, genero indarkeria, herri bateko edo bestekoa sentitzeagatik inposaketak, identitateak, eraikuntza ekonomikoak... eta sexu-langileok hortxe gaude. Eta errealitate hauetako batek baino gehiagok zeharkatzen gaituzte.

Uste dugu sindikalizazioaren bideak estigmaterekin apurtzen duela eta gure borroka sozial eta politikoa indartzen dituela. Era berean, uste dut sexu-langileen munduan zenbait sektore ez daudela kapitalismoaren kontra. Liberal sentitzen direla eta horixe defendatzen



dutela. Ciudadanosek edo beste hainbat jendek defendatzen duten bezala defendatzen dute. Ezin dugu euren kontra egin, baina esan behar dizuet nire sail sindikala antikapitalista, eskubideen aldekoa eta feminista dela. Hauxe da guk nahi dugun prozesua eta, hortaz, ni gaur hemen ordezkatzan ari naizena. Hauxe da gure hautua: sistema kapitalista eta patriarkala suntsitzea, jakina. ♦





Orain **“Sexu-lana: Kriminalizazioa edo aitortza?”**  
jardunaldiak entzungai eta ikusgai dauzkazu

Klik bakar batekin bideoak ikus ditzakezu  
hitzaldi osoekin  
edo podcast-ak deskargatu, entzuteko

**[sexulana.iparhegoa.eus](http://sexulana.iparhegoa.eus)**





# Sexu-lana eta eskubideen aitortza, jendarte patriarkal kapitalista eta globalizatuaren gaur egungo testuinguruan

MARÍA BARCONS CAMPMAJÓ

---

## 1. SARRERA

**A**rgi dago jendarte patriarkal kapitalista eta globalizatuan bizi garela. Jendarte honetan genero eta klase desberdineriek badiraute eta sistemen funtzionamoldea honezkero globalizaturik dago. Zoritxarrez, bizi garen munduan pertsonen eskubideek ez dute ardura. Testuinguru honetan, sexu-lana feminismoetan eta, oro har, instituzioetan, pil-pilean, baina oraindik jorratu barik dagoen gaietako bat da.

Izan ere, azken urteotan prostituzioaren inguruko eztabaidak jardueraren legaltasun edo legaltasunik ezaren arteko antagonismo arriskutsura mugatu dira eta benetan garrantzitsuak diren subjektuak, hau da, prostituzioan aritzen diren pertsonak, ahaztuak izan dira. Jarrera ideologikoren edo eredu zehatz ezin hoberen batetik harago, eztabaida justizia sozialaren eta eskubideen (giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen) ikuspegitik abiatu behar da.

Azken sasoietan, kriminalizazio estrategiak eta zuzenbide penal zein administratiboa erabiltzen ari dira prostituzioaren kontra egiteko, baina hauek ez dira bitarteko “baliagarriak” ezta “eraginkorrak” ere (zorionez) prostituzioaren jarduerarekin amaitu nahi dutenentzat.

Gai gatazkatsuetako bat da ea zelako politika publi-

koak inplementatu behar diren prostituzioaren harira: politika arautzaileak, abolizionistak, debekatzailerak edo eskubideen aldekoak (Heim, 2011; Juliano, 2004; López Precioso eta Mestre, 2006). Eztabaida feministek debate etiko-morala bailitzan ekiten diote prostituzioaren gaiari: sexu-lanak dituen inplikazioen inguruko eta jarduera honetan aritzen diren emakume guztientzat eta kasu guztietan prostituzioak daukan ala ez daukan esplotazio izaeraren inguruko hausnarketetan (Bodelón eta Arce, 2018: 74).

Segidan, prostituzioa arautzeko ereduak labur azalduko ditugu.

## 2. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO EREDUAK

Europan, gaur egun, prostituzioaren inguruan erabiltzen diren araudi eta politikak oso ezberdinak dira, bai Estatutik Estatura, bai eta Estatu barruko maila azpinazionalan edo tokian toki ere (Crowhurst, Outshoorn, & Skilbrei, 2012). Markoen zailtasun honek existitzen diren ereduak kategorietan zehaztea ere zailtzen du.

Prostituzioa arautzeko ereduak lau sailetan bana daitezke eta hauen barruan azpieroak aurkituko genituzke: abolizionismoa (abolizionismo klasikoa, erradikala, bezeroak kriminalizatzeko mugimendua, abolizionismo moderatua edo mistoa), debekua, arauketa





## MARIA BARCONS

ala “erreglamentismoa” (arauketa modernoa edo neo-arauketa) eta, azkenik, eskubideen aldekoa.

### 2.1. Abolizionismoa

Abolizionismoarentzat prostituzioa debekatuta egon beharko litzateke, pertsonen duintasunarekin baterazina delako, eta hirugarren pertsonak kriminalizatzen dira, baina ez prostituzioan aritzen diren horiek.

#### 2.1.1. Abolizionismo klasikoa

Abolizionismo klasikoa Ingalaterran sortu zen, XIX. mendearen amaieran, prostituzioa arautzen zuten legeei erantzun moduan. Gerora, Europatik zein munduko beste parte batzuetatik zehar zabaldu zen (Heim, 2011). *“Abolizionismoak prostituzioa arautzen zuten legeen bitarteko misogino, zapaltzaile eta estigmatzaileak kritikatu zituen, prostituten eskubideak urratzen zituztela iritzirik, eta berdintasun, errespetu eta askatasunaren balio sozialen aldaketa beharra aldarrikatu zuen”* (Heim, 2011: 236-237).

#### 2.1.1. Abolizionismo erradikala

Abolizionismo erradikalaren mugimendua 1960ko hamarkadan sortu zen, feminismo erradikalaren barruan. Ikuspegi honen arabera, prostituzioa emakumeen kontrako indarkeria mota onartezinenetako bat da, emakumeen eskubide zibilak eta pertsonen duintasun eta integritaterako oinarrizko eskubidea ukatzen



Zuzenbidean Doktorea Bartzelonako Unibertsitate Autonomotik, Unibertsitate arteko Masterra Emakume, Genero eta Herritartasun Ikerketetan (2011) eta Politika eta Administrazio Zientzian Lizentziatua, Bartzelonako Unibertsitate Autonomotik (2007).

Antigona, eskubideak eta jendartea genero ikuspegiarekin, Ikerketa Taldeko ikerlaria eta ikerketa teknikaria da. Ikertzailea da Europa, Estatu, erkidego eta tokian tokiko eremuetako ikerketa proiektuetan.

Genero, zuzenbide eta politika publikoen eremuan hainbat ikerketa garatu ditu. Ikerketa hauen ildo nagusiak dira behartutako ezkontzak, prostituzioa, emakumeen kontrako bortxakeriak: alde soziojuridikoak, sexu bortxakeriak eta berdintasun planak enpresetan.

Beste hainbat lanen artean, azpimagarriak dira: “Las ordenanzas municipales: entre la regulación y la sanción de la prostitución en España”, [Revista Crítica Penal y Poder], “Mancances de la respuesta institucional envers les violències masculines a Catalunya”, [Debat juvenil] edo “Necesidad de políticas públicas sobre matrimonios forzados con perspectiva interseccional en España: retos ético-sociales. [Actas oficiales del V Congreso de la Red Española de Política Social (REPS) “Desigualdad y democracia: políticas públicas e innovación social”]

“

**Prostituzioaren inguruko eztabaidak  
jardueraren legaltasun edo legaltasunik  
ezaren arteko antagonismo arriskutsura  
mugatu dira eta benetan garrantzitsuak  
diren subjektuak, hau da, prostituzioan  
aritzen diren pertsonak, ahaztuak izan  
dira.**

baititu<sup>1</sup>. *“Feminismo abolizionista erradikalak uste du prostitutaren autodeterminazio eremua mugatuta dagoela, sexu-salerosketa definitzen duten sexu-menperakuntza maskulinoaren egiturazko ezaugarriek mugatuta, alegia. Honek prostitutei duintasuna eta autonomia ukatzen die eta, autonomia ukaturik, baimena emateko gaitasuna ere ukatzen die; beraz, kontratu ahalmena ere deuseztatzen da eta, ondorioz, bere subjektibitate propioa (sozial, politiko eta juridikoa) ere bai eta, hortaz, kontsumo objektu huts bihurtzen ditu edo, hobeto esanda, kontsumorako sexu-objektu”* (MacKinnon, 1989: 250).

### 2.1.3. Bezeroaren kriminalizazioa

Eredu honek prostituzioaren aurka borrokatu nahi du jarduera honen eskaeraren kontrako jazarpen penalarren bitartez, baina eskaintzan erreparatu gabe. Proposamen honek bezeroengan jartzen du arreta, prostituzioaren inguruko eztabaidetan normalean kontuan hartuak izaten ez direnak, eta sexualitatearen eredu heteropatriarkala kuestionatzen du.

### 2.1.4. Abolizionismo moderatua edo mistoa

Jarrera hau daukaten hainbat autorek aitortzen dute posible dela prostituzioan nor bere borondatez eta koakzio barik aritzea eta, hortaz, kontuan hartu behar direla eskubideen aldeko mugimenduak zenbait postulatu abolizionistari egin dizkien kritiketako asko (Heim, 2011). Jarrera honen arabera, prostituzioaren kontra egiten jarraitu behar da, bereziki zerbitzu sexualen eskaera apaltzen edo murrizten, baina honako hauek kontuan hartuko dituen ikuspegitik: a) prostituzioa errealitatea da; b) ez fribolizatu edo gutxietsi

<sup>1</sup> Nazioartean diren korrante honetako intelektual ezagunenetako batzuk Kathleen Barry, Andrea Dworkin, Catherine MacKinnon eta Carol Pateman dira.

prostituzioaren eragin indibidual eta sozial kaltegarriak; c) ez utzi albo batera termino ekonomikoetan prostituzioak daukan garrantzia; d) trafiko, trata eta prostituzio kontzeptuak bereiztu; e) ez lotu pertsonen eskubideak lanari edo nazionalitateari; prostituzioan aritzen diren emakumeen eskubide sozial eta ekonomikoak bermatu. *“Jokabide sozial okerrak kriminalizatzea ez da beti konponbiderik egokiena izaten; kriminalizazio honek legitimitate sozialaren krisi handia sorrarazi ere egin lezake, egiaztatzen bada aplikaezina dela edo ez dela eraginkorra gatazkei irtenbidea emateko”* (Rubio, 2008: 73-94).

Diskurtso abolizionistak uste du prostituzioan aritzen diren pertsonak beti direla abusuzko eta indarkeriazko sistemaren biktimak eta prostituzioa, edozein eratan, pertsona hauen duintasunaren eta beste giza eskubide batzuen urraketa dela. Beraz, feminismo abolizionistak sexu-langilea biktima bikoitzatzen hartzen du: prostituta izategatik eta sistema sozialaren barruan maila baxuen eta bazterrekoenetako bat betetzeagatik (Arella, Fernández, Nicolás, Vertabedian, 2007: 52-53).

### 2.2 Debekua

Debekuaren jarrera da prostituzioa ilegala dela, iritzi moralengatik, osasun arazoengatik edo ordena publikoaren kontuengatik. Hortaz, prostituzioan aritzen diren pertsonak zigortuak izaten dira.

### 2.3. Arauketa (“Erreglamentismoa”)

Arauketak defendatzen du prostituzioaren jarduera ez dela ilegala eta Estatuak honen funtzionamoldetan esku hartzen du.

Estatuek, prostituzioa arautzeko ereduren bat aplikatzen dutenean, jarduera honetarako esparru legalen

“

**Udal ordenantzen bitartez eta moza  
legearen aplikazioarekin prostituzioaren  
jarduera eta prostituzioan aritzen diren  
emakumeak kriminalizatzen  
eta hauen oinarritzko eskubideak  
urratzen ari dira.**



bat onar dezakete, inplizitu edo esplizituki (eredu abolizionista edo arauketa aplikatuz gero) edo baliteke inolaz ere ez onartzea (debekuaren kasuan gertatu bezala).

Beraz, debekuaren eta arauketaren bitartez prostituzioan aritzen diren emakumeak moralki kondentatuak izaten dira eta abolizionismoaren kasuan jarduera izaten da kondenatzen dena, jarduera arbuigarria denez gero (Heim i Monfort, 2004: 112).

Gaur egun, Estatu gutxik darabilte debekuzko eredu, gehienek sistema abolizionistaren alde egiten baitute, nahiz eta euretako askok prostituzioa kriminalizatzen duten hainbat arau edo praktika izan (Arella, Fernández, Nicolás, Vertabedian, 2007: 54-55).

Arauaketa modernoak jarrera bi konbinatzen ditu: alde batetik, prostituzioa jarduera legaltzat onartzen du, baina, bestetik, emakumeei ondorioak ekartzen dizkien ordena publikoko hainbat xedapen ere erabiltzen ditu, hala nola prostituzioaren zonifikazioa edo prostituzioaren jarduera hiriguneetatik zein beste

gune batzuetatik kanpo atera beharra (Bodelón et al., 2014). Eredu honen arabera, prostituzioan aritzen diren pertsonak, beste edozein langilek bezala, gizarte segurantzaren sisteman parte har dezakete, euren eskubide sozial zein sanitarioak babesturik dauzkate eta dagozkien zergak ordaintzen dituzte; baina, bestetik, kode penalak zigortuak izaten dira, prostituzioaren jarduerarako ezarrita dauden toki eta ordutegiak bete ezean (Bodelón et al., 2014).

#### 2.4 Eskubideen aldekoa

1970ko hamarkadan “eskubideen aldeko” mugimendua edo sexu-langileen eskubideen aitorpenaren aldeko mugimendua sortu zen. Hau, abolizionismoa bezala, emakumeen eskubideen urraketa inguruan kezkatutik zegoen, baina abolizionismoa ez bezala, ez zuen arazoa prostituzioaren existentzian zentratu, baizik eta prostituzioaren jardueran gertatzen den eskubideen urraketa testuinguruan (Heim, 2011). Carolina Villacamparen arabera, “eredu honek zera bilatzen du, beste edozein langileri bezalaxe, sexu-langileei ere izaera sozialeko oinarritzko eskubideak ematea, eskubideen justizia soziala



lortzeko helburuz” (Villacampa, 2012: 81-142).

Eskubideen aldeko ereduak prostituzioa lanbide zilegitzat jotzen du eta norberaren gorputza degradatzen duen jarduera denik ukatzen du. Harreman mota hau onartzen duten adin nagusiko pertsonen euren artean formalizatzen duten kontratutzat hartzen du prostituzioa.

Eredu hau, funtsean, hiru ardatzetan oinarritzen da: 1) sexu-lanaren kontzeptua; 2) kontzeptuen bereizketa: sexu-esplotazioa helburu duen pertsonen trafikoa, trata edo salerosketa eta sexu-lana; 3) prostituzioan aritzen diren pertsonen oinarritzko eskubideen babes, eta babes hau bereizten da sexu-esplotazioa helburu duen pertsonen trafikoa eta trataren biktimen oinarritzko eskubideen babesetik (Heim, 2011).

Orain dela urte gutxi, zenbait herrialdek prostituzioan legalki aritzeko aukera aitortzen zuten legeak onartu zituzten; hala ere, ez zituzten eskubideen aldeko mugimenduaren aldarrikapen guztiak jaso eta ez zuten parekatu beste lan esparruetan onartzen diren eskubide sozial eta laboral berberekin (Heim, 2011: 244).

Prostituzioa lan moduan aitortua izan dadin defendatzen da, prostituzioan aritzen diren pertsonen herritartasun eskubide sozialak eskura ahal ditzaten; kolektibo hau kriminaliza eta estigmatiza ez dadila eta eskubide hauek gauzatu eta bete daitezela aldarrikatzen da.

### **3. PROSTITUZIOA ESPAINIAKO ESTATUAN: AITORTZARIK GABEKO KRIMINALIZAZIOA**

Espainiako Estatuan prostituzioa ez da ilegala eta, hortaz, sexu-lanaren jardua ez dago zigor-kodean tipifikaturik. Bai, ordea, adin txikikoren bat denean edo desgaitasunen bat daukan pertsona denean (Zigor-Kodearen 188.1. artikulua) eta “adin nagusiko pertsona bat prostituzioan aritzera edo prostituzioan

jarraitzera behartzen denean, indarkeria, larderia edo engainua tarteko, biktimaren premia edo ahuldade egoeraz baliatuta zein nagusitasun egoera erabilia (Zigor-Kodearen 187.1. artikulua) eta, era berean, sexu-esplotazioa helburu duen gizakien trafikoa denean (Zigor-Kodearen 177bis artikulua). Zerrendatutako egoera hauek guztiak eta borondatezko prostituzioa oso ezberdinak dira; hala ere, araudi, politika publiko eta mugimendu sozial gehiegitan kontzeptualki nahasten dira borondatezko prostituzioa (edo sexu-lana) eta behartutako prostituzioa edo sexu-esplotazioa helburu duen trata edo trafikoa.

#### **3.1 Udal Ordenatzak**

2005ean Bartzelonako hirian Estatu espainoleko “elkarbizitzarako” lehen udal ordenantza onartu zen, prostituzioa arautu eta zigortzera etorri zena. Hurrengo urteetan beste hainbat ordenantza oso antzeko onartu ziren, eremu publikoa eta herritarren elkarbizitza babesteko balizko helburuarekin eta kaleetako sexu-lana kriminalizatu zutenak. 2006an Valentzian, Santanderren, Vicen, Martorellen, Mataron eta Leganesen; 2007an, Santiago de Compostelan eta Lleidan; 2008an, Castellón, Sevillan, Huescan eta Ávilan; 2009an, Granadan eta Guadalajaran; 2010ean, Alcalá de Henaresen, Bilbon, Palma Mallorcakoan eta Malagan; 2011n, Badajozen; 2013an, Valentzian eta Murtzian.

Prostituzioaren jardura arautzen duten udal ordenantzak tipologia bitan bana daitezke, ordenantza hauen formaren arabera. Lehen tipologia, “zibismoaren” udal ordenantza orokorrak dira. Hauen barruan, atalen bat edo artikulua batzuk prostituzioa arautzera eta zigortzera bideratzen dira. Bigarren tipologian eremu publikoan gauzatzen den prostituzioa arautzeko udal ordenantza espezifikoak sartzen dira. Espainiako Estatuko ordenantza gehienak lehen tipologiari dagozkio, hala nola, Bartzelona, Lleida eta Bilbokoak; bigarren tipologiakoak dira, esaterako, Sevillakoak eta La Jonquerakoak. Honetaz gain, bes-



*Eskubideen aldeko eredutik prostituzioa lan moduan aitortua izan dadin defendatzen da, prostituzioan aritzen diren pertsonak herritartasun eskubide sozialak eskura ahal ditzaten; kolektibo hau kriminaliza eta estigmatiza ez dadila eta eskubide hauek gauzatu eta bete daitezela aldarrikatzen da.*

te tipologia bi ere bereiz daitezke, segun eta nor den arauketaren eta zigorraren objektua. Lehen tipologian daude eremu publikoan zerbitzu sexualak eskaintzea, eskatzea, negoziatzea edo onartzea zigortzen dutenak eta eremu publikoan sexu-harremanak izatea zehatzen dutenak; hau da, bezeroak zein sexu-langileak izaten dira zigortuak. Bigarren tipologian daude zerbitzu sexualak eskatzea, hau da, bezeroak, besterik zehatzen ez dituztenak. Zigorraren objektuaren arabera, ikeritutako ordenantza guztiak bezeroak eta sexu-langileak zigortzen dituzte, Sevillakoa izan ezin, azken honek

bezeroak baino ez baititu zehatzen (Barcons, 2018).

Hainbat ikerketek honezkero agerian utzi dutenez, gauza kezagarrienetako bat da ordenantzek prostituzioan aritzen diren emakumeen eskubideen urraketarako esparruak sortu dituztela, emakume hauen eskubideak sendotzeko tresna izatetik urrun (Maqueda, 2017).

### **3.1 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa**

4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa, edo Mozal Legetzat ezagutzen dena, Estatu mailako legea da eta izaera administratiboa dauka. 4/2015 Legeak ez du zigortzen eremu publikoan zerbitzu sexualak eskaintzea, baina ikasketa zentroetatik hurbil dauden zirkulazio publiko zonaldeetan ordaindutako zerbitzu sexualak eskatzea edo onartzea zigortzen du. Nahiz eta 4/2015 Legeak ez zehatu ordaindutako harreman sexualak eremu publikoan eskaintzea, negoziatzea eta izatea, sexu-langileak zigortuak izan daitezke, 37.5. artikulua aplikaturik: “Honako arau-hauste hauek arinak dira: 5. Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako ekintzak egitea edo horiek egitera bultzatzea, edo erakuspen-egintza lizunak gauzatzea, zigor-arloko arau-haustea ez denean” (37. artikulua, Arau-hauste arinak, 4/2015 Legea)

Era berean, sexu-langileek isunak jasotzen dituzte 36.6. artikulua ere aplikatzen zaielako, hau da, autoritateari desobedientzia leporatzen zaielako. Autoritateari desobedientzia saski-naski hutsa da, eremu publikoan oinarritzko askatasunak zigortzeko erabiltzen dena. Honen adibide daukagu Kataluniako kasua, Genera erakundeak adierazi bezala, bertan jaso dituzten sexu-langileen kontrako salaketa gehienak autoritateari

<sup>2</sup> Itzultzailearen oharra: Lege hau euskaraz kontsultatzeko, [https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3442-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3442-E.pdf)

desobedientzia tipifikatzen duen 36.6 artikuluekin daude lotuta. Arau-hauste larritzat hartzen da hau eta isuna 30.000 eurotara hel daiteke, “erakuspen-egintza lizunengatiko” zigorraren hirukoitza. 2015etik 2017ra bitartean 29.438 zehapen izan dira Espainiako Estatu artikulua honen aplikazioa dela eta, baina ezin dugu jakin hauetatik zenbat izan diren sexu-langileen kontra, Barne Ministeritzak ez baitu informazio hau bereizten.

Barne Ministeritzaren datuen arabera, 4/2015 Legea uztailaren 1ean indarrean hasi zenetik, 2015-2017 bitartean Estatu mailan indar polizialek 591 zehapen ezarri dituzte sexu-langileen kontra, “sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako ekintzak egitea edo erakuspen-egintza lizunak gauzatzea” leporaturik. Isun hauek guztiak, orotara, 100.420 euro izan dira. Madrileko erkidegoak honelako zehapenen indizerik altuena dauka: Estatu mailako zigor guztietatik, 138 Madrilen izan baitira.

Amnistia Internazionalak lege proiektua tramitatu bitartean salatu zuen lege honek polizia agenteen eskumeneko boterea handitzen zuela eta ez zuela kontrol bitartekorik jartzen zehapen prozeduran jardura polizial arbitrario edo neurrigabekoak ekidin ahal izateko. Agerian geratu denez, halaxe gertatu da.

#### 4. ONDORIOAK

Prostituzioaren jardura eta prostituzioan aritzen diren emakumeak kriminalizatzen dituzten legedi eta politikak emakume hauen oinarrizko eskubideak urratzen ari dira.

Kriminalizazio honek hainbat ondorio dakartza, bereziki eredu abolizionistan eta arauketa berrian edo “neo-erreglamentismoan”: prostituzioan aritzen diren emakumeek euren jardura lekuz aldatu behar dute, eremu publikotik eremu pribatura edo eurentzat horren zakar edo kaltegarria ez den beste eremuren batera, hala nola, hirigune kanpoaldeetara, poligonoetara edo parkeetara. Leku aldatze honek, bai hiri barruko beste zonalde batzuetara, bai beste hiri edo herri batzuetara, emakumeen lan baldintzak okertzen ditu; izan ere, ezagutzen den toki batetik toki ezezagun batera mugitu behar izateak hainbat zailtasun dakartza berarekin batera, hala nola lankideen saretik aldentzea edo ohiko bezeroak galtzea e.a.

Eremu publikoetan emakumeak askeago sentitu ohi dira bezero bat onartu ala ez onartzeko momentuan edo zerbitzu mota eta baldintzak adosteko orduan,

eta irabaziak oso-osorik izaten dira eurentzat. Aitzitik, eremu pribatuak (etxebizitzak, klubak, muebléis) sexu-langileentzat eremu ilunagoak dira, ikustezinago egiten dituzte eta egoera ahulagoetan jartzen dituzte.

Esparru akademikotik nabarmendu denez, Herbereetako, Erresuma Batuko eta Suediako ereduak ondorio oso ezberdinak izan ditzaketeela dirudien arren, “ebidentziak nabarmen utzi du legediak antzera erabiltzen ari direla prostituzioa hainbat eremutatik erauzteko edo desagerrarazteko. Zehazkiago, kaleko prostituzioa gero eta gogorrago erreprimitzen ari da, Estatu mailan zein tokian toki, prostitutak eta komunitateak babes-teko balizko xedeaz” (Hubbard, 2007: 28).

Hainbat ikerketen arabera (Neuts et al., 2014), prostituzioaren inguruko araudi eta politikak lotuago daude politika higienistekin eta eremu publikoen gentrifikazio politikekin, prostituzioan aritzen diren lagunak babestea bilatzen duten politikekin baino.

Eremu publikoko prostituzioaren jarduerak ez du herritarren elkarbizitza hondatzen, ez du segurtasun publikoko arazorik sortzen, ez du ibilera oztopatzen zirkulazio publikoko tokietan eta ez dakar berarekin batera ekintza zakar edo zurkaltzik. Gaur arte ez dago kontrakorik erakusten duen ikerketa akademikorik. Horrela, udal ordenantzetan eta 3/2015 Lege Organikoan erabiltzen diren argudioak aitzakiak baino ez dira kaleak sexu-langilez “garbitzeko”, eremu pribatuetan “ezkutatzeko” eta prostituzioa existitzen dela estaltzeko: laburbilduz, moraltasun afera da (Barcons, 2018).

Estatu espainolean prostituzioa arautzen eta zigortzen duten udal ordenantzak segregazio soziala sustatzen duten politika neoliberalen testuinguruan daude kokaturik (Maqueda, 2015) eta hainbat kontu dakartzate eurekin batera: estigmatizazio sozialerako teknika dira; eremu publikoaren erabilera debekatzen dute; polizia etengabean identifikatzen eta jazartzen aritzea bideratzen dute, eta “mehatxu sozialtzat” hartuak izaten diren koletiboak etengabe zigortuak eta mehatxatuak izatea sustatzen dute (Maqueda, 2015). Eta are larriagoa dena: prostituzioaren inguruko ordenantzek sexu-langileen eskubideak mugatu eta urratu egiten dituzte.

Espainiako Estatu, teoriarik, zuzenbide Estatu demokratiko eta soziala da. Zuzenbide Estatu demokratiko eta soziala da, baina zenbait kolektibo, sektore eta klase sozialentzat besterik ez, zeren eta sexu-langile-



entzat eta indarrean dagoen sistema sozioekonomiko eta moralaren “transgresoreak” diren beste kolektibo batzuentzat, zoritxarrez, ez baita horrela.

*“Espainiako Estatua, bere ordenamendu juridikoan, abolizionista bada ere, praktikan eredurik maltzurrenaren arabera arautzen du prostituzioa: aitortzarik gabeko kontrola”* (Mestre, 2004). Galderarik egokiena ez da ea prostituzioak ze gauza txarrik edo kaltegarririk ote daukan, baizik eta zeintzuk elkarbizitza jarraibide eta hierarkia sozial mehatxatzen ote dituen (Juliano, 2017). ♦

## ■ Bibliografia

ARELLA, Celeste, FERNÁNDEZ Cristina, NICOLÀS Gemma eta VERTABEDIAN, Julieta (2007): Los pasos (in) visible de la prostitución, estigma, persecución y vulneración de derechos de las trabajadoras sexuales en Barcelona, Virus argitaletxea, Ensayo saila.

BARCONS CAMPMAJÓ, Maria (2018): “Las ordenanzas municipales: entre la regulación y la sanción de la prostitución en España”, *Revista Crítica Penal y Poder*, 15, OSPDH. Bartzelonako Unibertsitatea, 90-109. or. <http://revistes.ub.edu/index.php/CriticaPenalPoder/article/view/26785/28088> helbidean eskuragai.

BODELÓN, Encarna et al. (2014): Anàlisi de la normativa europea, estatal, autonòmica i local de la prostitució: implicacions per a l'exercici de la prostitució a la ciutat de Barcelona, Bartzelona: Bartzelonako Udala.

BODELÓN, Encarna y ARCE, Paula (2018): “La reglamentación de la prostitución en los ayuntamientos: una técnica de ficción seguridad ciudadana”, *Revista Crítica Penal y Poder*, 15, OSPDH. Bartzelonako Unibertsitatea, 71-89. or. <http://revistes.ub.edu/index.php/CriticaPenalPoder/article/view/26821/28087> helbidean eskuragai

Crowhurst, Isabel, Outshoorn, Joyce, & Skilbrei, May-Len (2012): “Introduction: Prostitution Policies in Europe”, *Sexuality Research and Social Policy*, 9(3), 187–191. or. DOI: <https://doi.org/10.1007/s13178-012-0100-7>

HEIM, Daniela (2011): “Prostitución y derechos humanos”, *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 23, 234-251. or. <https://ojs.uv.es/index.php/CEFD/article/view/716> helbidean eskuragai

HEIM, Daniela eta MONFORT, Núria (2004): Prostitució i polítiques públiques: anàlisi i perspectives d'un conflicte històric. Especial referència a la situació en els Països Baixos i Suècia, *Revista Catalana de Seguretat Pública*, 15, 109–119. or.

HUBBARD, Phil (2007). *Regulating the spaces of sex work: assessing the impact of prostitution law: Full Research Report*. ESRC End of Award Report, RES-000-22-1001. Swindon: ESRC.

JULIANO, Dolores (2007): *Tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios*. Bartzelona, Bellaterra.

JULIANO, Dolores (2004): “El peso de la discriminación: Debates teóricos y fundamentaciones”, Osborne, Raquel (editorea) *Trabajador@s del sexo. Derechos, migraciones y*

tráfico en el siglo XXI. Bartzelona, Edicions Bellaterra S.L.  
LÓPEZ PRECIOSO, Magdalena eta MESTRE, Ruth (2006):  
Trabajo sexual: reconocer derechos, Valencia, Ediciones la  
Burbuja.

MACKINNON, Katherine (1989): Hacia una teoría  
feminista del Estado. Madrid, Cátedra.

MAQUEDA, María Luisa (2015): “La criminalización del  
espacio público. El imparable ascenso de las “clases peligrosas”,  
Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología, 17-12,  
1-56. or. <http://criminet.ugr.es/recpc/17/recpc17-12.pdf>ISSN  
1695-0194 helbidean eskuragai.

MAQUEDA, María Luisa (2017): “La prostitución: el  
“pecado” de las mujeres”, Cuadernos electrónicos de filosofía  
del derecho, 35, 65-89. or. DOI: [https://doi.org/10.7203/  
CEFD.35.9791](https://doi.org/10.7203/CEFD.35.9791)

MESTRE, Ruth M. (2004): “Las caras de la prostitución en el  
Estado español: entre la Ley de Extranjería y el Código Penal”,  
Raquel Osborne (koord.) Trabajador@s del sexo: derechos,  
migraciones y tráfico en el siglo XXI, 245-261. or.

NEUTS, Bart, DEVOS, Tom, & Dirckx, Toon (2014):  
“Turning off the red lights: Entrepreneurial urban strategies  
in “De Wallen” Amsterdam”. Applied Geography, 49, 37–44.  
<https://doi.org/10.1016/j.apgeog.2013.09.005>

RUBIO, Ana (2008): “La teoría abolicionista de la  
prostitución desde una perspectiva feminista. Prostitución y  
política”, Isabel Holgado (ed.), Prostituciones. Diálogos sobre  
sexo de pago, Bartzelona: Icaria, 73-94. or.

VILLACAMPA, Carolina (2012): “Políticas de  
criminalización de la prostitución: Análisis crítico de su  
fundamentación y resultados”, Revista de Derecho Penal y  
Criminología, 7, 81-142. or.





iparhegoa

IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA



>idazkaritza feminista